JAI EGITARAUA • KIROLAK • ERREPORTAIAK • TXUTXUMUTXUAK

# Arrasate PRESS

1997ko
ekainak 20
368. zenb.



## San Juan Jaiak 97

# Gozatzeko egunik euzeenak



# San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue Arrasateko Udalbatzak arrasatear guztioi

ARRASATEKO UDALA



# Alkatearen agurra

Gu usu Urkulu zu zurrut zurrumurru
Oso gozo oro zoro
Hik irri nik zirri irrintzi bi ziri bizirik bizi biziki tirikitiki
Erre erre berez ezerez jendez bete esker eder
zezen ezen ezer ere ez
Garra bagara algara arrapalada aska danak
plazara azkar dantzara hala bada parada.

Ondo Passa!

*Alkatea*

**ARKO**
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitatea**: Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz*
*Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz*
*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

## 368. zenbaki honetan

*1997ko ekainaren 20an*

*Irakurlea idazle* ..........**4**
*Jaietako agenda*......**6/7**
*Euren ikuspuntutik*..........**8**
*Inkesta*......................**11**
*Orain eta hemen* .**13/18**
*Asteko gaia* ........**25/27**
*Kirolak jokoan*.....**33/36**
*Txutxumutxuak*........**39/41**
*Denborapasak* ..........**49**
*Azoka plaza* ........**50/52**
*Ikusi eta entzun* ..**54/56**
*Fotozaharra* ..................**58**

*Ikuspegia*
**Rosa Mondragon** ..........................**8**
*Hogeita hamar galderatan*
**Mikel Lasa** ..................................**25**
*Aurrez aurre*
**Manolo Añibarro**....................**26/27**
*Asteko gaia*
**Pilota Zaldibarren**..................**17/19**

Memesa
79 42 22

**Hilbera kafetegia**
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

**UGARAN**
jatetxea
**Garagartza auzoa**
**Tfnoa: 79 76 58**
**ARRASATE**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igualatorioa . . . . . . . . . . . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . . . . . . . . . . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . . . . . . . . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11

**Gurutze Gorria**
Bergara . . . . . . . . . . . . . . . . 76 55 76

**DYA**
Antzuola . . . . . . . . . . . . . . . . 78 71 57

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak). . . . . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . . . . . . 77 05 78
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 77 12 64
Oñati . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . . . . . . . . . . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . . . . . . . . . . . 79 74 58
Aramaio . . . . . . . . . . . (945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak . . . 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78 04 11
Bergara . . . . . . . . . . . . . . . . 76 14 69
Arrasate . . . . . . . . . . . . . . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . . . . . . . . . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . . . . . . . . . . . . . . . . 088

**Ertzaintza**
Arrasate . . . . . . . . . . . . . . . . 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . . . . . . . . . . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . . . . . . . . . . . . . . 900 40 05 23
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 78 44

**Garraioak**
Taxiak . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 12 22
PESA. . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 14 19

**Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . . . . . . . . . . . . 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron. . . . . . . . . . . . . . . 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia . . . . . . . . . . . 79 58 77

## ZER EGITEN DA HIRUGARREN MUNDURAKO LAGUNTZEKIN?

Hirugarren Mundurako laguntzarik emango ote genukeen galdetzen zaigunean, Arrasate Presseko inkesta sailean orain gutxi egin zen moduan, baiezkoa izan ohi da gure lehenengo erantzuna, hori baita gizalegeak agintzen duen erreakzioa. Zalantza -gizalegezkoa bera ere- segituan azaltzen da, ordea: baina... zertan erabiltzen da laguntza hori?... nora bidaltzen da guk emandako dirua?... zeren eta, nork ez du aditu behin edo behin, norbaitek gure borondate on eta ilusioaz trufa egin eta laguntza horiek bidegabe erabili dituela?

Ezin gara zalantzan gelditu, eta pauso bat aurrera egin eta zera galdetu beharko genioke geure buruari: ba al da modurik ziurtatzeko gure laguntzari agindutako norabidea eta erabilera emango zaiona? "Bai erabat" da Harremanen erantzuna.

Harremanek hainbat urte darama hezur eta haragizko lankidetza-proiektuetan lanean, Indiako Unai proiektuan, Cochabamban (Bolivia), Bukawun (Kongoko Errepublika Demokratikoan) eta Angolan, eta horietan guztietan proiektuak hasi eta burutu egin dira. Zin egin eta frogatzeko moduan gaude.

Hauek dira Harremanen jarduera-printzipioak, inoren diruak ondo erabiltzen direla ziurtatzeko: 1. Laguntza hori herri pobre batean garatuko den proiektu batean inbertitzea. 2. Dohanketa egin duenari informazio zehatza ematea. 3. Diru hori administrazio-gastuetan inoiz ez erabiltzea.

Iragan hilabetean, Afrikan laguntza-lanetan 30 urte egin dituen batek zera esan zigun Monterronen egindako hitzaldi batean: "laguntzak oso beharrezkoak dira, eta proiektuetara iritsi daitezeen, beharrezkoa da hemengoak izanik Hirugarren Munduan laguntzeko beste asmorik gabe dauden pertsonen eskuetan ipintzea". Horixe da Harremanek aztertzen duen lehen gauza proiektu bat aukeratzerakoan; proiektuaz han arduratuko dena Arrasatekoa (Angola proiektuan bezala) edo inguruetakoa izan dadin saiatzen gara (Unai eta Bukawu proiektuetan aretxabaletarrak izan dira zuzendari).

Hilabete honetan San Clemente (Kolonbia) proiektuan parte hartzeari ekin diogu Aretxabaletako Hiruatxekin batera: Sebastian Uribetxeberria aretxabaletarrak zuzenduko du eta hango gazteak produkzio agroaalimentarioan gaitzeko tailer bat egitea du helburu.

Hau da Harreman ireki nahian dabilen bidea, lagundu nahi duten pertsona guztiek ziurtasuna izan dezaten beren laguntzek batetik ehun emango dutena.

***Harreman taldea***




LENIZ
Garagardotegia
*Ondo pasatu San Juanetan!*
Iturriotz, 8
Tel.: 79 22 29 ARRASATE

SAGASTA HARATEGIA
-OLATXO-
San Juan jai zoriontsuak pasatu!
Maalako Errabala, 7 • ARRASATE • Tel.: 79 13 22

BIRIBIL
Edari eta tabakotan espezialistak
Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE

# San Juanak


Jose mari Astigarraga

Ahalegin kolektiboaren sinbolo den makala altxatzearena ia ondo ateratzen den", zioen Xabier Letonak azken aldizkarian.

Ahalegin kolektiboa behar du izan herria altxatzea ere, eta ez dut ahalegin formalik ikusten gure artean; alderdikeriaz amorratuta dabiltza alderdiak batasunean lanean aritu ordez.

Gogozko zait makalaren sinbologia baina ez dadila hortan geratu. Altxa dezagun denon artean makala eta herria, inor saihestu eta kriminalizatu gabe.

"Dragoiaren izpiritu indartsuaz elikatzea"ri, bidegabekeria deritzot. Dragoiak ez du izpiritu eraikitzailerik, indarkeri desgintzailea baizik; dragoiak ez du pakerik ekartzen, izua eta beldurra baizik; dragoiak ez du justiziarik ekartzen, herriko "dontzella ederrenak eta akatsgabeak" irensten ditu, negarra eta dolumina utzirik.

**"San Juan festek badute bere izpirituzko elikadura, mitologiara jo gabe"**

San Juan festak Juan Bataiatzaileari eskainitakoak dira, eta badute bere izpirituzko elikadura mitologiara jo gabe. Bezperako Salbea adibidez, bihotza dardaraz jartzen duena; Meza Nagusia ospetsuki abestua eta bizitua, eta, batez ere, historia den San Juanen mezua:

"Jerusalen hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen, eta, beren bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian. Fariseo eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek:

- Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela? Ager ezazue zeuen egiteetan bihotz berrituak zaudetela, eta ez hasi Abrahamen ondorengoak gara esaten. Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak.

Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.

Nik urez bataiatzen zaituztet bihotz-berri zaitezten; baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor hari oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Izpiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.

Jendeak galdetzen zion: - Zer egin behar dugu, bada?

Hark erantzun zien: - Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere banatu dezala.

Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion Berri Ona herriari".



Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Iturriotz, 7 • Tel.: 79 81 68 • ARRASATE

asesoria
ARRASATE
• Juridikoa
• Laborala
• Fiskala
• Zurich aseguruak
Erdiko kalea, 32 - 1. I
ARRASATE
Tel.: 79 01 47 • Faxa: 79 73 00




PEÑAKOBA


## 20 ostirala

**■ ZINEA**

*La noche cae sobre Manhattan.* Alai zineman. 7etan eta 10etan.

**■ ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA**

Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 7etan.

**■ ITURBIDE EGOITZAREN UDAKO EKINTZAK**

Arratsaldeko 6etan *Corazon de Encina* elkartearen emanaldia egoitzako aretoan.

**■ DURO FELGUERAKO LANGILEEN ALDEKO KONTZERTUA**

*La Polla, Dixebra, Koma, Latzen* eta *Pi LT* taldeen kontzertua gaueko 10etan Musakolako kiroldegian.

**■ *TORITO BRAVO* ANTZERKIA**

*Txirene* taldearen *Torito Bravo* antzezlana Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

## 21 larunbata

**■ ZINEA**

*El quinto elemento.* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**■ INTSUMISIO EGUNA**

• Eguerdiko 1etan kalejira.

• 2.30etan bazkaria. Txartelak Ekaitz, Biona, Etxerat eta Iluntzen salgai 500 pezetatan.

• Arratsaldean 6etatik 8ak arte antzerkia eta tabernetan kontzertua.

• Gaueko 10.30etan rock kontzertua Gaztetxean Etsaiak eta Ekon taldeekin. Antimilitarista taldeak antolatuta.

**■ SAN JUANETAKO EKINTZAK**

• Goizeko 9etatik 2ak arte Aire Zabaleko XVI. pintura lehiaketa. Sari banaketa Monterronen 6etan.

• 10.30etan San Juan pilota txapelketaren finalak.

• Arratsaldeko 4etan Saskibaloi txapelketa Iturripen.

**■ KAIOLAKO GALEPERREN TIRAKETA**

San Kristobalgo kanposantuaren gainean Kaiolako galeperren tiraketa. Ordutegia: goizez 11.30etatik 1.30etara. Arratsaldez 4etatik 7ak arte.

## 22 igandea

**■ ZINEA**

*El quinto elemento.* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban mendatea, Landa, Zalduondo, Altsasu, Zegama, Aztiri, Oñati eta Arrasate, guztira 114 km. Irteera goizeko 8etan Monterrondik.

**■ HAUR DANTZARIEN EGUNA**

• Goizeko 10etan jubenil mailako I San Juan saskibaloi txapelketa.

• 10.30etan dantzariei ongi etorria Nafarroa etorbidean.

• 11etan II. San Juan Goitibehera txapelketa.

• 11.45etan kalejira eta dantzak.

• 3etan goitibehera-zale eta animatzen direnentzat bazkaria.

• 5etan dantza emanaldia Herriko plazan.

• 7etan *Txinparta* taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

## 23 astelehena

**■ ZINEA**

*El quinto elemento.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

**■ SAN JUAN JAIAK : BEZPERA**

• Arratsaldeko 3etan diana.

• 4etan bonba japoniarrak.

• 4.30etan *Auskalo* taldearekin haur animazioa Herriko plazan.

• 5etan makalaren bila.

• 6.30etan makala altxatzea.

• 7.30etan Salbea.

• 9.30etan Errementari Dantza Nafarroa etorbidetik Herriko plazara.

• 10.30etan San Juan sua Herriko plazan.

• 11etan Nagusien Tanborrada SUDCek antolatuta.

• 12etan *Akelarrea* Monterronen.

• 1etan *Gaubela* taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

• 2etan Karaokea jai gunean.

**■ MANIFESTAZIOA**

Tanborradaren ostean Gestorak antolatutako manifestazioa.

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

ARROGOI TABERNA
Sanjuanak iritsi dira, zatoz gugana!
Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

## 24 asteartea

**ZINEA**

*El quinto elemento.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

**JAIAK: SAN JUAN EGUNA**

• Goizeko 8.15etan txokolatada Herriko plazan.

• 8.30etan diana.

• 9etan entzierroa eta ondoren bigantxak.

• 11etan Meza Nagusia San Frantzisko elizan.

• 11etan erraldoiak eta kilikiak.

• 12etan bandaren kalejira eta Abaroan 80 urtetik gorako aiton-amonei omenaldia.

• 1etan bandaren kontzertua Monterronen.

• 7etan *Iraunkorrak* txarangarekin kalejira.

• 7.15etan *Lizaso* eta *Murua* bertsolariak Seber Altube plazan.

• 7.30etan kale-antzerkia *Trapu Zaharra* taldearen *Tambores Mundi.*

• 8etatik 10ak arte Dragoi Jana Herriko plazan.

• 10.30etan Rock jaialdia: *Iskanbila* eta *Latino Diablo* taldeekin.

• 11.30etan *Maixa* eta *Ixiarrekin* dantzaldia Herriko plazan.

• 12etan Su artifizialak Santa Barbaran.

**ENKARTELADA SEBERON**

Arratsaldeko 7etan enkartelada Seberon. Gestorak antolatuta.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Gaia: Prepirenaica. Egilea: Luisi G. Katarain. Aita Mennin arratsaldeko 4.30etan.

## 25 asteazkena

**SAN JUAN JAIAK: HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA**

• Goizeko 8.15etan txokolatada.

• 8.30etan diana.

• 9etan entzierroa eta ondoren bigantxak.

• 9.30etan San Juan txirrindulari lasterketa afizionatuentzat.

• 12etan Txarangalaru osatzeko tailerrak Herriko plazan.

• 1etan Txarangalaruren kalejira Monterronera Eguzki Laru esnatzeko.

• 1.30etan jolasak Monterronen.

• 2.30etan bazkaria Herriko plazan.

• 3.30etan Karaokea Herriko plazan.

• 5etan Saltsa tronik ikuskizuna Herriko plazan.

• 5.15etan mus, partxis eta futbolin txapelketak jai gunean.

• 7etan Eguzki Laruri agurra eta erraldoiak eta kilikiak.

• 7etan jaialdia Zezen plazan.

• 7.15etan Bertsolari gazteen emanaldia Seber Altube plazan.

• 10.30etan Rock jaialdia: *Arsenal, Eskizofrenia Rock* eta *Subterranean Kids.*

• 11etan *Gozategi* taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

• 12etan zezen suzkoa Herriko plazan.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA AITA MENNIN**

Gaia: Islandia. Egilea: Javier Fernandez. Aita Mennin arratsaldeko 4.30etan.

## 26 osteguna

**SAN JUAN JAIAK: KUADRILEN EGUNA**

• Goizeko 8.30etan diana.

• 9etan entzierroa eta bigantxak.

• 10.30etan kuadrilen arteko olinpiadak Herriko plazan.

• 12etan kalejira Arrasateko trikitilariekin eta *Incansables* txarangarekin.

• 2.30etan herri bazkaria Zaldibarko pilotalekuan.

• 6.30etan I. San Juan Aerobitona.

• 6.30etan eskuz pilota partiduak Zaldibarko frontoian.

• 7etan Incansables txarangarekin kalejira.

• 8etan *Lorelei* taldearen kontzertua Jai gunean.

• 10.30etan *Haitzama* taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

• 12etan astakiloei merezi dutena emango zaie.

**ERREPRESALIATUEI OMENALDIA**

Eguerdiko 2.30etan Zaldibarren egingo den Herri Bazkarian errepresaliatuei omenaldia egingo zaie. Gestorak antolatuta.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA AITA MENNIN**

Gaia: Bi emakume Turkiatik Birmaniara bizikletan. Egileak: Amaia Elosegi eta Esther Mugertza. Aita Menni ospitalean arratsaldeko 4.30etan.

**ITURBIDE EGOITZAREN UDAKO EKINTZAK**

Arratsaldeko 6etan San Jaun jaiak ospatzeko dantzaldia zuzenean egoitzan daudenentzat.

## Kontuan hartzeko

**DRAGOI JANAREN ORDUTEGIA**

**Ekainaren 24an asteartean Dragoi janeko afaria 9.30etan hasiko bada ere, 8etatik aurrera ikuskizun berezia egongo da Herriko plazan, joku desberdinak eta ondo pasatzeko aukera paregabea egongo da bertan.**

**UDALAKO BIDEA ITXITA GOITIBEHEREN TXAPELKETAGATIK**

**Goitibeheren III. Euskal Herriko Txapelketa jokatuko dela eta, igandean, ekainaren 22an, Udalako bidea itxita egongo da goizeko 10etatik ordu bata arte. Udalara joan beharra izanez gero, 10ak baino lehenago igo.**

**INTSUMISO EGUNEKO BAZKARI-TXARTELAK**

**Zapatuan Intsumisio egunean izango den bazkarirako txartelak Ekaitz, Biona, Etxerat eta Iluntz tabernetan salgai 500 pezetatan.**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 20**
• Gauez: Irizar. Erguin.

**Larunbata 21**
• Gauez: Amezua. Santamaina.

**Igandea 22**
• Gauez: Ruiz. Maala.

**Astelehena 23**
• Gauez: Azkoaga. Ferrerias.

**Asteartea 24**
• Gauez: Español. Iturriotz.

**Asteazkena 25**
• Gauez: Corcuera. Musakola.

**Osteguna 26**
• Gauez: Irizar. Erguin.

## USTEAK USTE

### *Lana bai, jaiak nola ez!*

**Azken hilabeteotan gogor lan egin behar izan du lagun talde handi samar batek, 4 egunetan garatuko den jai egitarau ahalik eta beteena osatu ahal izateko. Gustokoa izango lukeen edo ez jakin aurretik, hainbatek erabakia hartuta izango du: San Juanetan kanpora. Okerrago eurendako, eta toki gehiago geratzen direnendako.**

**Arrazoi bat edo beste bat tarteko, gustora etorriko litzatekeen beste hainbati ezinezkoa zaio herrira bueltatzea. Ahal duenak ahal den moduan ospatuko ditu San Juanak. Eta ospatzerik ez duenak, seguru gogoan dituela; bertakook eurak ondo gogoan ditugun moduan.**

**Kontua da kenketa eginda, geratzen garenon artean moldatu beharra dugula San Juan jaiak ahalik eta ondoen pasatzeko. Batzuk lana ere izango dugu, baina baietz aurkitu parrandarako tarteren bat edo beste! alde batetik, antolatze lanetan ibili direnen ahalegina estimatu egin beharko dugulako; bestetik, eta gehienbat, parrandazale ere bagarelako. Kalean ikusiko dugu elkar.**

**Beñardo Kortabarria**



# Lesbianen eta gay-en eguna

**Maitena Zubia**

Ekainaren 28a hurbiltzen ari zaigu eta gay eta lesbianen aldarrikapenekin eta sexu askatasunaren erreibindikapenekin bat egitea gain, gaiaren inguruan zenbait erreflexio plazaratzea pentsatu dugu.

2000. urtearen ateetan egon arren, gizartea homosexualitatearen debatean murgilduta aurkitzen da, ideia eta jarreren arteko ezadostasuna nagusitzen delarik.

Sarritan lehenbizi aldaketa intelektualak ematen dira, kontzeptzio batzuk utzi eta beste batzuk egiten ditugu geure. Ausnarketa pertsonala dela medio, ideietatik jarrera berriak izatera pasatzen gara eta ondoren ekintzetara.

Gure ustetan debatea, maila intelektualean aurkitzen da oraindik. Salto kualitatiboa emateko, ondo legoke gogoratzea zeintzuk ideia eta kontzeptzio sexual oinarritzen duten sexualitate ofiziala, mendebaldean eta gaur egun. Heterosexualitatea eta ugalketari buruz ari gara alegia.

Sexu ezberdinketan oinarritutako sexualitate paradigman mugitzen gara. Gizonezkoen sexualitatea alde batetik eta emakumeena bestetik, biak "ezberdinak" eta "osagarriak" bezala kontsideratzen direlarik.

Bestalde ugalketa eta sexualitatea nahastu eta bateratu egiten dira. Hainbat harreman sexual ezberdinetatik, baloratuena ernalketa ahalbidetzen duena delarik. Horren adibidetzat antisorgailuak ditugu, beraiei esker ondorioak eragotzi daitezke baina aldaketa kontzeptuala ez da eman.

> **"Paradojikoki, harreman sexualak onartzeko irizpidea uniformitatea izan ohi da"**

Paradojikoki, harreman sexualak onartzeko irizpidea uniformitatea izan ohi da (adina, klase soziala, arraza, erlijioa…) baina sexuari dagokionean, kontrako arau soziala jarraitu behar da, hau da, gizona-emakumea.

Bukatzeko aurtengo ekainaren 28ko aldarrikapenak entzunak eta lagungarri izan daitezela espero dugu, sexualitatea ulertzeko, bizitzeko eta adierazteko modu ezberdinak libertatez eman daitezen.

Maitena Zubia,
Informazio eta Orientazio Sexualeko arduradunetariko bat.

**HIES EKIMENA**
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99




NEREA
Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 79 13 43
Bainujantzitan
espezialistak!


Ausartu
zaitez!
Scott Byerly
LORAMENDIN


Hurbil zaitez
MECAra eta begiratu.
Mégane Scénic
Mégane Cabrio
Zorionak Arrasate!
Mégane Spider
Mégane Espace
MECA
San Andres auzoa • ARRASATE • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99

# Zer da San Juanetatik gehien gustatzen zaizuna?



**Mari Jose Martinez**
**Langilea**
**(42 urte)**

San Juanetan ez naiz herrian egoten. Orduantxe oporrak izaten ditut eta tarte hori aprobetxatzen dut kanpora joateko.



**Julio Hernandez**
**Ikaslea**
**(16 urte)**

Kontzertuak eta txoznetan egoten den giroa.



**Ascensión Ugarte**
**Etxekoandrea**
**(43 urte)**

Giro gutxi egoten da, baina merkadiloko postu asko jartzen dira eta hori gustoko dut. Txarangek ere asko animatzen dute.



**Gorka Rubiales**
**Ikaslea**
**(19 urte)**

Gauetan kalera irtetzea. Bezperako gaua gustatzen zait gehien.



**Dioni Jimenez**
**Etxekoandrea**
**(57 urte)**

San Juan bezperako Salbea eta kontzertuak. Gero vermuth bat hartu eta kitto.



**Juan Carlos Bengoetxea**
**Langilea**
**(33 urte)**

Auzoetan geratzen den lasaitasuna. Ni San Andresen bizi naiz, eta auzoa hutsik egoten da. Hala ere arratsaldetan etorriko naiz erdialdera.



**Joana Onkala**
**Ikaslea**
**(15 urte)**

San Juan sua. Herriko Plazan izaten diren dantzaldiak ere bai.



**Roman Lopez**
**Jubilatua**
**(62 urte)**

Emakumeen mus txapelketa. Horrez gain, kontzertuak eta goitibeherak.

OKORETEGI
KAFETEGIA
Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62
Aupa San Juanak! Aupa Arrasate!

# Pack Joven



16.900 pta. -gatik bakarrik

- 6 hilabetetarako botatzeko kontaktulenteak.
- Bi poto, soluzio bakarrekoak (ReNu 500 ml.)
- Lenteetarako kutxatila.
- Eta Walkman bat oparitzat



MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.

Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekargu barik.

GAZTE TXARTELA

GAZTE TXARTELA baldin badaukazu, erabli ezazu Multiopticas-en.

LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK




Eguzkiaren areara hurbildu eta marka ezazu tanto bat.

CHRISTIAN DIOR • GIANFRANCO FERRE • OXIDO • BURBERRYS • POLICE • VOGART • ANGARO • STING • BENETTON • AVENUE • SISLEY • LOIS • TRAFFIC • XS • PACO RABANNE • RAY-BAN • SILHOUETTE • GIULIO TABACCHI • VOGUE • DUCCI

## EGUZKI MODA, MODAKO JENDEARENTZAT




Multiopticas-eko eguzki bildumekin mundu guztia pasarelan dago.

MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

R.P.S. 421/96

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA** : Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
J.M. Barandiaran Enparantza - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA
**MULTIOPTICAS EIBAR** : Bidebarrieta, 2 - Tel. 20 05 22 - EIBAR



Briz

# ZURICH ASEGURUAK

## *Casimiro Briz Salinero*

*Aseguru-Aholkularia*

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tel./Faxa: 79 42 35 • Tel.: 79 71 52
ARRASATE



ZABALETA

# ZABALETA

## Lurrindegia

## Opariak

Maisu Arano, 2 ARRASATE Tel.: 79 12 32

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

## astea bi hitzetan

### A-20 gunekoekin hitzarmena

Ostiraleko plenoan onartu egin zen A-20 guneko lau enpresekin hitzarmena sinatzea. Horren arabera, enpresa horiek arduratuko dira dagokien urbanizazioa egin eta kostua ordaintzen. Hitzarmen mota hori sinatu ez duten kasuetan, Udalak zuzenduko du urbanizazioa eta ondoren enpresek ordaindu beharko dute kuotaren arabera.

Ezker Batua lau enpresekin hitzarmena sinatzearen kontra azaldu zen. Angel Tijerok esan zuenez, arazo legalak sor daitezkeenez Udalarendako arriskutsua izan daiteke era horretako hitzarmenak sinatzea.

### Sukia enpresari adjudikazioa

*Construcciones Sukia* enpresari eman dio Udalak San Kristobalen aldi baterako hilobiak egiteko ardura. Oraingo honetan 652 hilobi eraikiko dira.

Aurreko hilabeteko plenoan onartu zen kanposantu berria handitzeko proiektua, eta ostiralekoan obrak adjudikatu ziren.

### 160 zabor poltsa bildu Udalatxen

Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, astebukaeran zabor bilketa egin zen Udalatxeko leize batean. Guztira 160 zabor poltsa bete ziren Hondarba leizetik ateratako zaborrarekin. Batez ere aluminiozko papera, latak eta botilak jaso ziren, baina baita kargatu barik zegoen pistola bat ere. Antolatzaileen esanetan zaborra aspalditik zegoen bertan, baina garbiketarekin txukun samar utzi dute leizea.
Zapatuan hamar lagun ibili ziren leizetik zaborra ateratzen, eta igandean beste hainbat lagunek ere lagundu zuen bildutako zaborra Udalara jeisten.

### Arrakasta Oskorriren ikuskizunak

Astearte arratsaldean Oskorri and The Pub ibiltaria ikuskizuna eskaini zen Amaian, eta antzokia goraino bete zen. Izan zen, gainera, sarrera barik geratu zenik ere. Bestalde ikuskizuna ona izan ei zen, eta publikoak ere parte hartu zuen. Umeek ez ezik, euskaltegiko ikasleek ere gogo handiz parte hartu zuten ikuskizunean.



### BERDINTASUNERAKO PLANA ABIAN DA

Plenoak Ekintza Positiborako plangintza onartu, eta astelehenean Emakumearen Batzordeko kideek prentsaurrekoa eman zuten. Prentsaurrekoan batzordean parte hartzen duten zinegotziak, eta emakume taldeetako ordezkariak izan ziren. Emakumeei eta gizonezkoei aukera berdinak eman nahi dien planaren berri ematea izan zen prentsaurrekoaren helburua.


AREITIO

*Kirolzalea bazara zatoz AREITIO KIROLAKera*

*Jai zoriontsuak eta gora Arrasate!*

*Zarugalde, 35*
*ARRASATE*
*Tel.: 79 38 38*

UDAKO Ikastaro Intensiboak 97

AKADEMIA BASTIDA
INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 35 33*- 79 32 16
Fax: 79 06 28
e-mail: bastida@facilnet.es

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Multimedia Sisteman ematen dira)
PROGRAMAZIO INFORMATIKA
INTERNET
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
KONTABILITATEA
ZERGA GESTIOA PYMEetan
GIZA ERREKURTSOEN ADMINISTRAKETA
MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
INGENIERITZA TEKNIKOA
LAGUNTZAKO KLASEAK
abuztuan ere prestatzen da

# Parrokiako obretarako dirua emango duten bazkideen bila

San Juan parrokiaren barrualdea konpontzen hasi direla eta, obretarako dirulaguntza emango duten bazkideak bilatu nahi dira. Lan horretan hasiko da egunotan parrokiaren zaharberritzearekin arduratzen den batzordea. Batetik, San Frantzisko elizan bazkide egiteko txartelak utziko dira, eta San Juan parrokiako familiei gutuna bidaliko zaie helburu berdinarekin. Familia horiei, gainera, beste bazkide batzuk bilatzeko ahalegina egitea eskatuko zaie. Bestalde, jaietako elizkizunetan biltzen den dirua ere San Juan parrokiaren obrarako izango da.


Parrokiaren barrualdean obrak hasi direnez, andamioz bete dute.

Ez da batzordea bazkide bila hasten den lehen aldia. Aurrez egindako kanpainei esker, gaur egun 800 lagunek hilero diru kopuru bat ematen dute. Horrez gain, diru kopuru garrantzitsuagoa ematen duten 15 edo 20 laguneko taldea ere badago. Orain, berriz, gehiago bilatu nahi dira barruko obrek ekarriko duten 200 milioiko kostuari aurre egiteko. Diru kopuru hori urtebetean bildu nahi da; obrak apirilean bukatu orduko.

## Diputazioari kiroldegirako dirua eskatu

Diputazioak egindako txosten teknikoan Udalari kiroldegia konpontzea gomendatzen zaionez, hori egiteko dirulaguntza eskatu dio Udalak Aldundiari. Musakolako kiroldegia 1977an eraiki zen eta Gipuzkoako zaharrenetarikoa da. Hogei urte hauetan egin izan dira inbertsioak kiroldegian, baina ez da dirulaguntzarik jaso Diputaziotik. Horregatik, dirua ematea eskatu dio Arrasateko Udalak.

Astelehenean, gainera, AUKEAren junta bildu zen. Juntan jakinarazi zenez, Udalak Sika enpresari eskatutako txostenean informazioa falta da, eta hori gehitzea eskatu zaio Sikari. AUKEAren juntan hitzegindakoaren arabera, ondo dago informazio gehiago eskatzea baina aurrekontua ere eskatu behar zaio, hau da, konponketa zenbat kostako litzatekeen. Behin hori jakinda, AUKEAko juntaren asmoa hauxe da: aztertzea ea konpontzea merezi duen edo hobe den kiroldegi berri bat egitea.

Jai Zale
TABERNA
• Bokatak
• Pintxoak
• Infusio naturalak
eta...
MARTXA
TOPATUKO DUZU!
Olarte, 37
Tel.: 79 67 92

Zubia
Oinetakoak
Poltsak
Zapatak
Gerrikoak
Ondo ibili San Juanetan!

Mitarte, 14
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 16 00
Biteri, 1
ARRASATE
Tel.: 79 66 53

GOIZ-ALDE
GOZARIAK, PLATER KONBINATUAK ETA MERIXENDAK
Iturriotz, 33 • Tel.: 79 11 15

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

Bost urte bete ditugu zure ilea zaintzen...






LEHEN






LEHEN

ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART &

ZZ

ILEAPAINDEGIA

...horregatik ospatu egin behar dugu.

Nola?

Hilabete honetan **bost ileapaingintza saio** edo **irudi aldaketa zozketatuz.**

GORBEA, 2 • ARETXABALETA • Tel.: 77 09 44

# TELAETXE S.A.

## SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA

# OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

**Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)**

**Telefonoak: (943) 76 39 40 / 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA**



Aukera handia oihaletan eta pusketatan, metroka zein pisura.
EDREDOI NORDIKOAK.
TAPIZEN ERAKUSKETA:
Zetak, kortinak, toailak, yakareak, izarak, tapizak, etab.
KONFEKZIO SAIL BERRIA bisita ezazu:
Galtzak, parkak, alkondarak, txandalak, sudaderak, jertseak, haurrendako arropak...
FABRIKAKO PREZIOAN!!

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30
Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

# Hamalau milioiko gastua izango dute aurtengo jaiek

Azken urteetan gastatu den antzerako diru kopurua beharko da aurtengo San Juanetan ere: 14.260.000 pta. guztira. Azkenaldian igoera oso txikia izan dute San Juan jaiek.

Gastu batzuk aipatzekotan honako hauek aipatuko ditugu: txaranga bakoitzak 150.000 pta. kobratuko du gutxi gorabehera. Musikarekin jarraituz, Herriko Plazan dantzaldia eskainiko duen talde bakoitzak 250.000 eta 350.000 pta. bitartean kobratuko du. Beste ikuskizun batzuei dagokienez, helduen tanborradak 900.000 pezetako gastua du, eta haurren eguneko ekintzek 700.000 pezetakoa. Goizetan izango diren entzierroetarako guztira 1.200.000 pta. jarriko ditu Udalak, eta 800.000 su artifizialetarako. Urtero moduan zezenak Bizkaiko Orozkoko ganaduzale batek ekartzen ditu.

Bestalde jai gunean milioi bat pezeta gastatuko dira, kontzertuetarako megafonia eta jartzeko. Kopuru txikiagoa eskatzen duten ekintzarik ere izango da: aiton-amonei egingo zaien omenaldia, esaterako, 300.000 pta. kostako da, eta kale antzerkia 200.000.



**Helduen tanborradak 900.000 pezetako gastua du.**

## AEDk badu jaietarako leloa

Urtero moduan pegatinak aterako ditu AEDk jaietan. Lehiaketa deitu ostean, lelo hauxe aukeratu da pegatinan jartzeko: "ibiltzen ez dana ordaiketan dalako, erabilizu!". Eneritz Garro arrasatearra izan da leloaren asmatzailea. Guztira 4.000 pegatina aterako ditu euskararen aldeko elkarteak.

Bestalde, jaietarako aterako diren kamisetek eta zapiek lelo berdina eramango dute. Aurrean "Geu gara garra" idatzita, eta atzealdean AEDren esaldia. Kamisetak 500 pezetan salduko dira, eta zapiak 200ean.




**AEDren aurtengo pegatina.**

La CEPA RIOJANA
Jatetxea/Taberna
Berezitasunak:
patatak pipar biziekin
Untxia saltsan eta denetariko frijituak
Ferrerias, 19 • Tel.: 79 20 02 • ARRASATE

M. AZPILIKUETA
HARATEGIA
URDAITEGIA
EUSKO LABEL KALITATEA
Bañez Doktorea, 10
ARRASATE
Tel.: 79 28 21

# Udalak egindako lanpostu eta lan-poltsen eskaintzek erantzun ona izan dute

Guztira 96 lagun aurkeztu dira azken hilabeteotan Udalak kaleratu dituen lanpostu eta lan-poltsa eskaintzetara. Lana sortzen denerako osatzen ditu Udalak lan-poltsak, zerrenda bat osatu eta beharrezko frogak egin ondoren jendeari zuzenean deitzeko, frogetan ateratzen duen puntuaketaren arabera. Gutxi gorabehera 2 urteko iraupena izaten dute lan-poltsek. Lanpostu eskaintzak, berriz, zuzenean lanean hasteko izaten dira.



Udal Euskaltegian irakasle izateko aurkeztu da jende gehien.

Zehatz mehatz esanda, honako lan-poltsa hauek osatu ditu Udalak:

- Udal Euskaltegirako irakasle esperientziaduna: 30 lagun aurkeztu ziren, 28ren eskaria onartu eta 2 baztertu.
- Udal Euskaltegirako praktikazko irakaslea: 11 lagun aurkeztu.
- Arotzak: 7 lagun.
- Elektrikariak: 3 lagun.
- Galdaraginak: 6 lagun.
- Iturginak: 4 lagun aurkeztu.
- Igeltseroak: 5 lagun aurkeztu.
- Udaltzain laguntzaile: bakarra.

Lanpostu eskaintzetara aurkeztutakoak, berriz, honako hauek izan dira:

- Udal Irratirako laguntzailea: 7 lagun aurkeztu, 5 onartu eta 2 baztertu.
- Udal Liburutegirako laguntzailea: 12 lagun aurkeztu, 3 eskari onartu eta 9 baztertu.
- Ingurugiro Eskolako laguntzailea: 10 lagun aurkeztu, 6 eskari onartu eta 4 baztertu.

## Arimazuriko hondoratzeak konpontzeko proiektua onartu

Udalak Arimazuri plazan dauden hondoratzeak konpontzeko proiektua onartu du. Aurrez aurrekontua onartu zen, 2.700.000 pta., eta orain, proiektua ontzat eman da. Jarraian, lehiaketa deitu eta obrak adjudikatuko dira konponketak lehenbailehen has daitezen.

## Hormetako pintadak kenduko dira bigarren aldiz

Hormetako pintadak kentzeko lanak adjudikatu ditu Udalak, eta lan horretan 1.700.000 pta. gastatuko dira. Gehienbat erdialdean egin dituzten pintadak kenduko dituzte, baina baita auzoetakoak ere. Urtean hiru aldiz kentzen dira hormetako pintadak, eta aurten bigarren aldiz egingo da lan hori.

TXOKO TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Comercial ARPE
Era guztietako artikuluak ileapaindegietarako
Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 79 78 09

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.
Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

# MUNDUKO MUSIKA








Afrika 1



Kuba



Afrika 2



Afrika 3



Atlas Etnikoa



Salsa



Flamenkoa



Zeltiar Sustraia

**Doinuz doinu, entzun herrien arnasa**
**euren musikaren taupadaz**
**iraupen luzeko zortzi disko konpaktutan**

**Ekainaren 21etik aurrera,**
**asteazken eta larunbatetan euskaldunon Egunkaria + 550 pta.**

# AKELARRERA!

San Juan bezperan, zatoz Akelarrera afari ostean!

**Ekainaren 23an gaueko 12etan (Sorginen orduan), Monterron parkean... SEKULAKO AKELARREA**

Irrintzi lehiaketa, dantza, musika, edabe magikoa, erratz lasterketa, zortea eta maitasuna erakartzeko konjuroa, Mari, akerra, magia, sorpresak, e.a.

Oharra: irrintzi lehiaketan edota erratz lasterketan parte hartzeko izena eman beharko zaio sorgin arduradunari 11:30etatik 12ak bitartean.



ANTOLATZAILEA
**Gazte Ekin**

Ekin
Emakumeak • AED






**weru**

**Ate + leihoak**

**ERAKUSKETA:** Garro Jenerala, 2
**BILTEGIA:** Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE

Salterain

**PVCko ate eta leihoez gain: Moketak jartzea, zoru arinak, kortxoa, Louverdrape kortinak, Kortinoba, textila...**

# Euskal Herriko III. Goitibehera Txapelketa Udalako bidean igandean

Iazko arrakasta ikusita, aurten goitibeheren elkarteak Arrasate aukeratu du Euskal Herriko txapelketa egiteko. Igandean goizeko 11etan hiru gurpildun tramankuluak izango dira nagusi Udalako aldapan. Euskal Herriko txapelketa izateak garrantzi berezia ematen dio Arrasateko probari, baina AED-ko Hego Haizea taldeko antolatzaileek esan dutenez prestaketa ez da hain zaila izan. "Iaz ondo antolatu genuen eta aurten jarraipen bat baino ez da izan". Guztira Euskal Herri osotik 30 bikote espero dira. Arrasatek, jakina, izango du ordezkaririk. AEDkoen esanetan herriko bost bat bikotek hartuko du parte. Era berean gogoratu behar da Arrasateko jeitsiera Euskal ligarako puntuagarria izango dela. Joan zen urtean goitibeheren liga sortu zen. Orduan hiru jeitsiera egin ziren, Saran, Azkainen eta Arrasaten. Aurten beste bost herri sartu dira zerrendan: Oiartzun, Donostia, Galdakao, Iurreta eta Gatzaga. Liga martxoan hasi zen eta urrira arte iraungo du.



Bigarren urtez Goitibeherek ere izango dute tokirik San Jaun jaietan.s

Domekako txapelketan hainbat sari banatuko dira. Lehenarentzat 30.000 pta. eta txapeldunaren txapela, bigarrenak 20.000 pta. jasoko du, hirugarrenak 15.000 pta., laugarrenak 12.000 pta eta horrela lehenengo hamar sailkatuak arte. Horrez gain zori txarrari 5.000 pezetako sari berezia emango zaio eta goitibehera orijinalenak ere jasoko du saririk. Txapelketa dela eta, Udalako bidea goizeko 10etan itxi egingo dute.

**KONTUAN HARTZEKO**

Bestalde antolatzaileek derrigorrez bete behar diren arau batzuk kaleratu dituzte. Goitibeherek hiru gurpil eta arrastak eraman beharko dituzte eta neumatikozko gurpilak. Kaskoa derrigorrezkoa da eta goitibehera bakoitzean bi lagun joan daitezke. Gidariak ezin du bultzatu. Bi jeitsiera egingo dira, biak erlojuaren aurkakoak. Lehenengo jeitsierarako postuak zozketatu egingo dira eta bigarrenerako irteerak aurrez egindako denboraren arabera antolatuko dira. Antolakuntzak ez du parte hartzaileei gerta dakiekeenaz erantzunkizunik izango. Norberaren asegurua norberaren kontu joango da. Izenematea egunean bertan goizeko 9etatik 10.30etara egingo da Erguingo Herri Eskolan edo aurrez AEDra zuzenduz. Behin txapelketa bukatuta Monterronen bazkaria izango da. Bazkarirako txartelak txapelketa gunean egongo dira salgai. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte ikusle moduan joan edo parte hartzeko.

J. RAMÓN OTAMENDI
HARATEGIA
Berezitasunak:
bertako okela, buzkantzak eta txorizoa
Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 79 62 28

KAJOI

MENDIZABAL

okindegia
Kalebarren, 10 • Tel.: 75 20 91 // Baltegieta, 6 • Tel.: 75 13 99
SORALUZE

# Maixa eta Ixiar

# Bexamela eta pastela

**San Juanetan egunero izango dira dantzaldiak herriko plazan. Talde desberdin askok egingo dute jendea mugimenduan jartzeko ahalegintxoa. Horien artean Maixa eta Ixiarrek osatzen dutenak. Disko berriaz, dantzaldian eskainiko dutenaz eta beste hainbat gauzaz berba egiteko Maixa harrapatu genuen. Eta zelakoa den mundua, trikitilaria telefono mugikor moderno batean elkarrizketatu behar.**



Maixa Lizarribar.



Ixiar Oreja.

**- Zer eskaini behar duzue San Juanetako dantzaldian?**

- Denetarik, gure kanta ezagunenak, azken diskoan sartu ditugunak, eta grabatu barik dauzkagunak baina dantzaldietan beti eskaintzen direnak.

**- Gogoz?**

- Bai, Santamasetan bertan egon ginenean sekulako giroa egon zelako.

**- Diskoa grabatu berri duzue. Faltan botatzen dut betiko trikitixa.**

- Egia esan, gaur egun diskoetan apenas grabatzen dira fandangoak edo arin-arinak. Oso oker ez banago, Tapia eta Leturia izan ziren fandangoa, porrusalda eta abar ez zen zerbait sartzen ausartu zirenak. Orain guztiok antzerako gauzak egiten gabiltza.

**- Eta salmentekin zela zabiltzate?**

- Datu berri berririk ez daukat, baina esan dezaket aurreko diskoaren 7.000 atal saldu zirela Gabonak arte. Ondo dago, ez?

**- Klaseak eman, plazazplaza ibili... musikatik bizi daiteke?**

- Beno, ni bizi naiz. Nekagarria den? Uda bukatzen denerako nekatuta egoten gara, baina kontuan hartu behar da gustora egiten dugun gauza bat egiten ari garela.Isilik egon gara bost hilabete, oraintxe hasi gara berriro, eta kristoren ilusioarekin gabiltza.

**- Denak emakumezkoak zarete. Plazetan nola hartzen zaituzte?**

- Denetarik entzun behar izan dugu. Jende gaztea, oso espabilatua, desorduetan, edanda... edozer gauza esateko behar bestek ausardia hartuta. Kasurik ez eta kitto!

**- Bukatzeko. Nor da bexamela eta nor pastela?**

- Ez dakit, sekula ez didate galdera hori egin. Batzutan bata eta beste batzuetan bestea izango dela uste dut. Bexamela eta pastelarena hitz jokoa gustatu zitzaigulako egin genuen, gainera biok biak oso gustoko ditugu.


San Juanetan gau eta egun zabalik

Kafeak, pintxoak, sanwichak eta abar giro aparta baten

BAR GARIBAI 5.

• Karburazioa
• Kotxeen osagarriak
• Telefonia digitala (Airtel)

Uribarri Etorbidea, 16
Tel./Faxa: 79 73 58
ARRASATE

AGUSTIN
Auto Soinua

ZUK NAHI
Taberna
Pintxo goxoak giro onenean!
Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26

Bodisca s.l.
Zeramika pabimentu eta gaineztaldurak
Otalora, z/g. Zarugalde, 3 Tel.: 79 65 25 ARRASATE

MERKEKILO
Oihalak
Kortinak
Ferrerias, 5
Tfnoa: 79 15 00
Zorionak Arrasate!




# Beatriz

## oinetakoak

1946-1997

*50 urteko muga gainditu dugu zure oinak jazten!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 79 14 33

LORE
LURRINDEGIA

KABINA

*gorputz tratamendua*
•
*aurpegi tratamendua*
•
*drenaje linfatikoa*
•
*depilazio elektrikoa*

Olarte, 10
ARRASATE
☎ 79 52 50



Solariuma
dutxarekin




Helena Rubinstein • Clarins • Biotherm • Ayer

*Etxe txukuna*
*txoko kuttuna*

Ehune

*Otalora, 22*
*Tel.: 77 11 48*





# Pilota desafioa

**Urtero letxe, San Juanetako azken arratsaldean jende ugari hurbilduko da Zaldibarko frontoira. Herri bazkaria bukatu eta gero, norbaitzuek gogoz eta gogor egin beharko dute lana Zaldibarko frontoiaren kantxa garbi garbi gera dadin. Bertara zuriz jantzitako pilotariak agertu, serio serio jokatzen hasi eta arerioa edo arerioak menpean hartzeko ahaleginean murgilduko dira.**

Azken 9 urtetan bezala, pilota afiziotzat dutenak izango dira San Juanetako azken arratsaldearen protagonista. Beraz, aurtengoarekin hamar aldiz kantxaratuko dira pilotari sasi-afizionatuak eta epaileak Zaldibarko frontoira. Galdu edo irabazi, ondo edo gaizki jokatu, erabaki onak edo txarrak hartu, ikusleek txalo artean hartuko dituzte protagonista denak. Seguru. Baliteke pilota gosea izatea, edo baliteke ere, beste barik, ikusleen partehartzeko eta girotzeko gogoaren islada izatea. Kontua da jende ugariren gozamenerako pilota partiduak ikusi ahal izango direla.

### FRONTOIA BALEGO, HORRELAKO PARTIDURIK EZ

Euskal Herriko edozein herriko jaietan pilotak bere tokia izaten du, toki garrantzitsua gainera. Arrasaten, baina, ez dago ganorazko frontoirik, horregatik ezin pilotari profesionalez osatutako jaialdirik antolatu.

1988. urteko San Juanei begira, aurrekoaren antzerako gogoeta egin zuen lagun talde batek. Profesionalak ekartzeko ezintasuna ikusita, pilota giroko zerbait antolatzea bururatu zitzaien orduan ekintzaren bultzatzaile izan

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Ondo pasa jaiak!
TOKION
Erlojuak: Seiko • Citizen • Lotus • Casio
Kalkulagailuak, walkmanak
Urrea • Zilarra • Eta abar
Erdiko Kale, 7 • Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

ziren haiei. Profesionalekin ezin bada, egin dezagun bertakoekin. Hori izan zen abiapuntua.

Izenak ematea beti izaten da arriskutsu samarra, bakarren bat edo beste zerrendatik kanpo gera daitekeelako. Dena dela, Zaldibarko desafioen "errua" norbaiti leporatu behar zaionez, orain 9 urteko papertxoak begiratu eta argi eta garbi agertzen da ikuskizunaren arduradunaren izena: Gregorio Uranga, "Kirru", enpresaria. Tailer baten jabe izatetik, pilota enpresari izatera pasatu zen Kirru. Egun batetik bestera.

## IKUSKIZUNA APUR BAT GAINBEHERA

Urteak ez dira alperrik pasatzen. Horregatik, esan daiteke dagoeneko jendea apur bat aspertzen hasita dagoela, baina desafioa sortu zen urtean sekulako ikusmina nagusitu zen jai egitarauan bertan jakitera eman zenetik. Arrazoiak argiak dira: alde batetik ikuskizunaren ikusgarritasuna eta nobedadea; bestetik, berriz, pertsonaiak eurak, enpresaria, pilotariak, epaileak... oso ezagunak denak.

Eskuz banakako bi partidu jokatu ziren lehen aldi hartan: Jose Angel Langaran "Txikito de Beneras", Elosuko Reyes-en aurka; eta, Xipri Txispasen aurka. Arratsaldeko 6etan Udaletxetik irten ziren 4 protagonistak zuriz jantzita. Eurekin batera, enpresaria eta Maritxurako letxe jantzitako epaileak. Zaldibarko frontoira arteko bidea harro harro egin zuten denek, ezker eta eskuma jende asko begira zeukatela, euren artean berbetan eta jendearen galderei eta animoei erantzunez. Jendez gainezka aurkitu zuten Zaldibarko frontoia, eta bestebarik jokatzeari ekin. Ondorengo hiru urtetan, 1989, 1990, eta 1991ean errepikatu egingo zen ikuskizuna, partidu eta



Zaldibarren bildutako jendetzak pilotarien presentzia txaloz hartzen duenez, zuriz jantzitakoek derrigorrez agurtu behar izaten

# *Desafioa sortu zen urtean , herritarren nagusitu zen jai egitarauan jakitera em*

protagonista berdinekin. 1992an aldaketak, sasi-pilotarien partidua binakako bihurtu eta profesional biren arteko lehia. Lehenengoan Xiprik eta Txispasek osatutako bikotea, Txikito eta Txikuriren aurka; bestean, Urra eta Irazolaren arteko lehia. Gaur arte, protagonista desberdinak baina egitura antzerakoa izan dute Zaldibarko pilota desafioek.

## BROMETAN BAINA SERIO

Erdi brometan antolatutako ikuskizuna izanda ere, protagonistek serio hartzen dute partiduen erantzukizuna. Urtean zehar astero astero pilotan

## Desafioen historia emaitzetan

**1988**
Txikito de Beneras 18 - Reyes 12
Xipri 22 - Txispas 11

**1989**
Txikito de Beneras 22 - Txikuri 14
Xipri 22 - Txispas 17

**1990**
Txikito de Beneras 22 - Reyes 21
Xipri 16 - Txispas 22

**1991**
Txikito de Beneras 22 - Reyes 21
Xipri 15 - Txispas 22

**1992**
Xipri/Txispas 10 - Txikito/Txikuri 22
Urra 22 - Irazola 8

**1993**
Isturiz/Txispas 22 - Txikito/Txikuri 11

**1994**
Txikito 22 - Reyes 18

**1995**
Pirau 16 - Reyes 22
Txikito/Barbero 14 - Txikuri/Ikutixo 22

**1996**
Balandras 22 - Txikito 20
Txispas/Alfredo 22 - Txikuri/Joxe Rioja 19



dute partiduei hasiera eman aurretik.

## artean sekulako ikusmina an zen une beretik.

jokatzen dutenez, forma dexente onean egoten dira San Juanetako partiduetarako. Diferentzia bakarra izaten da: asteroko partiduetan ez dute normalean nerbiorik eta apenas izaten; Zaldibarren, berriz, kontuak beste modu batekoak izaten dira, urduritasuna nagusi. Gainera kontuan hartzeko beste zer bat ere badago, galtzaileak irabazlearen erdia kobratzen dute. Ohorea galtzeaz gain, argi dago beste zerbait ere galtzen dela. Normala seriotasunez jokatzea.

Txikito de Beneras, Balandras, Pedro Fernandez, Txispas, Txikuri eta Juan Vitoria, aurtengo protagonistak, egutegiari begira izango dira dagoeneko. Taktika prestatuta izango dute eta arerioaren punturik ahulenak zeintzuk diren ondo aztertuta. Eurak bezala, Xipri urduri egongo da. Aurten lan berria estreinatzen du, epaile.

Batek daki aurten aurrekoei ondo edo gaizki joango zaien. Ezin jakin ekainaren 26a arte. Modu berean, ezin jakin noiz arte iraungo duen Zaldibarko pilotaren ikuskizunak. Frontoi berria egin arte? ■

**Beñardo Kortabarria**

## Motz-motzean

Motz-motzean eta intentzio txar barik, urtez urte Zaldibarren lekuko izan den batengana jo du ARRASATE PRESSek, pilotarien ezaugarrien berri jaso ahal izateko.

Hona hemen emaitza:

- **Txikito de Beneras:** Frontoi barruan argiena.
- **Reyes:** Nerbio handia daukan emakume pilotaria.
- **Xipri:** Zigorrolako sugelindara, azkarra.
- **Txispas:** Jo eta jo, eta noizean behin tanto.
- **Txikuri:** Txapela kentzeko modukoa, noiz behinka.
- **Pirau:** Bolantista ona, baina pilotan…
- **Barbero:** Indarra.
- **Ikutixo:** Gaztetasuna eta osasuna.
- **Balandras:** Aurpegia ematen du beti.
- **Joxe Rioja:** Akabera gabeko konstantzia.
- **Pedro Fernandez:** Berak ona dela esaten jok.
- **Juan Vitoria:** Erguingo txapelduna.




**MANOLO AÑIBARRO** (MAKALA ALTXATZEKO SISTEMAREN ASMATZAILEA)

# "Makala ez da eroriko"

**Istripu txiki bat tarteko, ezinezkoa izan zen iazko jaietan makala altxatzea. Arrasateko mutilek euren gogo eta indar guztia jarri arren, makala bertan behera erori zen, eta mutil gazte bati susto ederra eman zion. Arriskuak baztertu eta makala zuzen altxatzeko asmoz, aurten Manolo Añibarroren asmakizuna ipiniko da praktikan. Laurehun kiloko zuhaitza, erraz altxatuko ei dute Añibarroren tramankuluarekin.**

**- Zer dela eta asmatu duzu makala igotzeko tramankulua?**

- Iaz istripu txiki bat egon zen makala igotzeko saiakeran. Ez zen ezer gertatu baina San Juan Batzordekoek, neurriak hartzea pentsatu dute aurtengo jaietarako. Zer edo zer asmatzea eskatu zidaten, ezer gertatu ez zedin.

**- Zehazki, zein da asmatu duzun mekanismoaren funtzionamendua?**

- Oso gauza sinplea da. Bi polea, zuhaitzera lotutako lau soka luze eta oinarri bat, besterik ez. Poleak Udaletxeko lehen solairuko bi lehioetan ipiniko ditugu. Horietatik bi soka luze pasatuko ditugu eta mutilek tiraka jasoko dute makala. Beste bi sokak makalaren norabidea zuzentzeko balio dute, alde batera edo bestera okertu ez dadin. Plaza erdian, makala altxatuko den tokian, burdinezko txapa bat jarriko dugu. Hori oinarritzat harturik, makala bere lekura eramango da eta erraz sartuko da zuloan.

**- Joandako zapatuan lehen saiakera bat egin zenuten plazan. Zer moduz joan zen?**

- Poleak lehendik erosita genituen eta bat oso txarra zen. Espero genuen bezala, apurtu egin zen, baina ez zen ezer gertatu. Oso sistema segurua da, bat apurtuta ere makala ez delako erortzen. Gainera, beharrezko poleekin erraz igoko dugu. Bihar, goizeko 10etan beste saiakera bat egingo dugu.

**- Zenbat mutil beharko dira makala tentetzeko?**

- Makalak, 20 metroko altuera eta 400 kiloko pisua du gutxi gorabehera. 28-30 mutilekin nahikoa izango da.

**- Makala altxatzea uste dena baino arriskutsuagoa da?**

- Ez. Gertatzen dena zera da, gaurko mutilek ez dutela baserrian edo basoan ibiltzeko ohiturarik. Gure asmoa beraz, arriskua kentzea izan da, besterik ez. Beste aukera makala gruaz jasotzea zen, baina horrek ez du graziarik. Jendearen partaidetza ezinbestekoa da.

**- Makala ondo altxatzea, jaiak ondo hastea izango da?**

- Bai, noski. Espero dezagun horrela izatea.



**"Jendeak arriskurik gabe partehartzea da tramankulua erabiltzearen helburua"**


Ekainaren 21etik 26ra, ARRASATE, gure paradisua!
San Juan
jaiak 97
GEU GARA GARRA!
SAN JUANAK 97
• AED
• AEK
• ARKO
• Arrasate Musikal-Musika Banda
• Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa
• Arrasateko Udala
• EKIN Emakume Taldea
• Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua
• Intsumiso Taldea
• Kuadrila Komisiñue
• Lore Gazteak Dantza Taldea
• Orkatz Skaut Taldea
• Pilota Elkartea
• Rock Taldeak
• Saskibaloi Taldea
• SUDC
• Trikitilariak
• Ttakun Txalaparta Taldea
• Txatxilipurdi
• Txikitxu-Arrostaitz Dantza Taldea
• Txirrindulari Elkartea
• Kolaboratzaile ugari
Geu gara garra!

# 20an

**DURO FELGUERAko**
langileen aldeko rock jaialdia Kiroldegian:
La Polla, Dixebra, Koma, Latzen eta Pi LT

# 21ean

**INTSUMISIO EGUNA**
**Ekintza ugari**
egunez eta gauez!



# 24an

**Musika banda,**
**Bertsolariak,**
**Dragoi jana,**
**Maixa eta Ixiar,**
**Su artifizialak**

Eta...
entzierroak, txokolatadak, ATB Seberon, dantzaldiak, txarangak, pilota partiduak...

## 22an

**Haur Dantzarien Eguna** eta **Goitibeherak Udalatik**

## 23an

**Makala, Salbea, Errementari dantza, Danborrada, Akelarrea**



## 25ean

**Haurren Egun Mundiala**

Eguzki Laru lagun goiz eta egun!

## 26an

**Ondarrutarren marmitakoa Zaldibarren eta Kuadrilen Eguna**



**Ekintzak barra barra, ikus esku programa. Zuk aukeratu eta parte hartu.**

# GAZTEOK JAI GUNETIK

## 23an

ARRATSALDEKO 5etan
**Makalaren bila joateko elkartuko gara**

GAUEKO 2etan
**KARAOKEA!**

## 24an

GAUEKO 10.30etan
**Rock jaialdia:**
**ISKANBILA eta LATINO DIABLO**

## 25ean

ARRATSALDEKO 5etan
**Mus, partxis, futbolin txapelketak**

GAUEKO 10.30etan
**Rock jaialdia:**
**ARSENAL**
**ESKIZOFRENIA ROCK**
**SUBTERRANEAN KIDS**

## 26an

ARRATSALDEKO 6.30etan
**Aerobiton Popularra**

ARRATSALDEKO 8etan
**Euskal musika fresko eta gozoa LORELEI taldearekin**

Egunero dotore kalera gaitezen
GEU GARA GARRA
zapi eta kamisetak merke-merke!

# JAI GIROA BULTZATUZ

txokolatadak, kuadrilen arteko olinpiadak, kalejirak, kale antzerkia,...

# 58. San Juan txirrindulari lasterketa saria asteazkenean

Ekainaren 25ean asteazkena afizionatu mailako txirrindulari lasterketa antolatu da. Lasterketa goizeko 9.30etan hasiko da Garibain eta helmuga ere bertan izango da. Afizionatu mailako txirrindulari ugari etorriko da Arrasatera, tartean Born Jay taldekoak. ATE taldearen helburua dominaren bat eskuratzea den arren, erronka ez da samurra baina ahaleginak egingo dituzte. Arrasateko taldeak Segoviako biran hartuko du parte ekainaren 26tik 29ra, beraz bertara ez doazenak izango dira herriko lasterketan: Gorka Valgañon, Jose Sedano, Oscar Estevez, David Sojo, Jon Unamuno, Iñigo Carvalho, Iñigo Mondelo eta Agustin Ulanga. Iazko irabazlea Ripolin taldeko Oscar Freire izan zen eta ATE taldeko Oskar Askasibarrek 6. tokia eskuratu zuen.



**Lehen eta bigarren mailako txirrindulari afizionatuak etorriko dira.**

## Xakea jokoan herriko plazan

Xake eguna ospatuko da ekainaren 28an Arrasaten. Arratsaldeko 4.30etan hasita aldi bereko xake txapelketa egongo da jokoan Herriko plazan. Jesus Berezibar jokalariak 25 lagunen kontra jokatuko du eta ordenagailu bat ere izango du aurkari. Ordu eta toki berean partidu azkarrak jokatuko dira. Arrasateko zortzi xake jokalarik Bergarako beste zortziren kontra neurtuko dituzte indarrak.

## Kuadrilen arteko I. Olinpiadak

Kuadrilen egunean, 26an, Kuadrilen arteko I. Olinpiadak antolatu dira. Olinpiada hauek bereziak izango dira eta bertara herriko kuadrila guztiak daude gonbidatuta, neskak eta mutilak jakina. Parte hartzaileek besteak beste traineru proba izango dute. Era berean urarekin eta beste produktu batzurekin egindako joko desberdinak eta horrez gain, kuadrilak arropekin ilara luzeena egiten saiatu beharko dira, norberak jantzita dituen arropekin. Umorea eta juerga ez dira falta izango Olinpiadetan, baina horretarako kuadrilek parte hartu behar dute. Kuadrilen komisioko antolatzaileek gonbitea luzatzen dute ahalik eta jende gehien elkartzeko.

## Aerobitona Jai gunean

Musikarekin gorputza mugitu nahi dutenentzat Arerobiton txapelketa antolatu da ostegunerako. Arratsaldeko 6.30etan jai gunean emango zaio hasiera Aerobic maratoiari eta bertara arrasatear guztiak daude gonbidatuta. Monitore lanak seguruenera Jon Aranbarrik egingo ditu eta parte hartzaileen artean herri bazkarira doazenak egon daitezke. Plana, bazkaldu ondoren aerobic-ean parte hartzea da.



Aretxabaletako Orlando Piratas taldeak irabazi du aurtengo Zaldibar txapelketa.

# Orlando piratas Zaldibarko txapeldun!

Orlando Piratasek eta Sortu Informatikak neurtu zituzten indarrak finalean. Harmailak jendez gainezka egon ziren eta berotasuna kantxan ere igertzen zen. Lehen zatia 2 eta 1eko emaitzaz bukatu zen Sortu informatikaren alde. Orlandoren gola Gorka Zubiriak sartu zuen, Sorturen biak Aranburuzabalak. Bigarren zatian 4 eta 2 jarri zen aurretik Arrasateko taldea Aranburuk eta Luengok sartutako golei esker. Emaitza horrekin bazirudien Sortu izango zela irabazlea, baina partidua bukatzeko hiru minutu faltan Aretxabaletako taldearen erreakzioa etorri eta Orlandok jarraian hiru gol sartu zituen. Alberto Garrok eta Jokin Idigosarek bi bider ez zuten azken minututan barkatu. Aurten beraz Zaldibar Txapelketa Aretxabaletara joan da.



Sortu Informatika txapeldun ordea.

# 3. eta 4. postuak

Betrayerrek eta Cerveceria Lenitzek jokatu zuten 3. eta 4. postua erabakitzeko partidua. Cerveceriakoek ezkontza bat zutenez ez ziren jokalari guztiak aurkeztu. Lehen zatian Betrayer izan zen jaun eta jabe kantxan. Bost gol sartu zituen eta Cerveceriak bakarra. Bigarren zatian beste bi gol. Dena dela ezbeharrezko albisterik ere egon zen. Antonio Tena Betrayerreko jokalariak peronea hautsi zuen eta ez da lehen aldia. Izan ere iaz Uribe Auzoa txapelketa jokatzen ere tibia apurtu zuen. Hori izan zen, zalantza barik finalaren eguneko albiste tristeena.



Betrayer eta Cerveceria Leniz izan ziren lehian lehen partiduan.








# Sari ugari banatu

Finala bukatuta sari banaketa egin zen Zaldibarren. Txapelketako sei jokalari onenak garaikur berezia jaso zuten: Edu Santiago (Fosforos), Gorka Madinabeitia (Insert Coin), Jesus Jara (Naranja Mekanika), Xabi Arabaolaza (Sortu informatika), Juan Luis Agirre (Galartza Kontenedoreak) eta Juan Luis (Sokoakoak). Jokin Idigoras izan zen finaleko jokalari onena. Bosgarren postutik zortzigarrenera sailkatu ziren taldeek, Irati STSk, Naranja Mekanikak, Galartza Kontenedoreak eta Fosforosek urdaiazpiko bana jaso zuten. 4. eta 3. trofeoa eta urdaiazpikoa. Sortu informatikak trofeoa, afaria eta urdaiazpikoa. Txapeldunak berriz, 2.ak irabazitakoez gain, datorren urterako fraka motzak eta kamiseta. Plaka berezia hil zen Haritz Etxeberriari eskaini zitzaion.



**Gorkak, Juan Luisek, Eduk eta Txananak saria hartu zuten baina ez ziren bakarrak izan.**



## Antolatzaileak umoretsuen

Igertzen zen Zaldibar txapelketako finala ospatzen ari zirela. Haritzek eta Aritzek pisu galanta kendu zuten gainetik zapatuan. Domekan beharbada buruan izango zuten pisua!

Aldi bi
Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02



## Horiek bai kopak

Hori dena edan eta gero, nola bukatuko zuten gaua? Oso ondo ez behintzat. Gainera ziur gaude ez zela edan zuten bakarra izango! Kirolariei ere kopa ondo beteta gustatu!



## ATBko fitxaketa berria

Oihanek emandako azalpenekin berehala ikasi zuen fitxaketa berriak kamara erabiltzen. Hemendik aurrera Aritzek Mondran jokatu beharrean Mondrako neurketak grabatu beharko ditu. Horrela balitz poztuko litzateke Oihane!

# Arrasate Kirolak atletismo taldeak lehen mailan jarraituko du

Taldeen arteko Euskadiko txapelketa Durangon izan zen domeka goizean eta arrasatearrek lortu zuten lehen mailan jarraitzeko helburua. Kadeteei eta beteranoei esker lortu zuen Arrasatek goi mailan jarraitzea. Gainera herriko atletek ganorazko pistarik ez dutela kontuan hartuta lorpen handia izan dela esan daiteke. Fernando Zufiria entrenatzailea pozik zegoen korrikalariak egindakoarekin eta iritzi berekoak ziren herriko atletak. Txapelketa honekin aurtengo helburuetariko bat beteta dago.

**TALDEEN SAILKAPENA**

1- Real Sociedad 136 puntu
2- Euskal Herriko Unibertsiatea 115 puntu
3- Iruña 98 puntu
4- Barakaldo 91 puntu
5- Arrasate Kirolak 68´5 puntu
6- Goiherri 54 puntu
7- Ederki taldea 53 puntu - Jeitsi egin dira
8 - Errenderia 48´5 puntu - Jeitsi egin dira

**EMAITZAK**

- 400 metro hesi - Juan Carlos Martin 59"25
- Pertika, Jonathan Perez 3´20
- Mailu jaurtiketa, Aitor Urizar 41,42
- Jauzi hirukoitza, Ibai Jurado 11´03
- 200 metro, Aitor Arnaiz 23"92
- 1.500 metro, Iñaki juez 4'34
- Altuera jauzia, Jokin Diaz De Lezana 1´80
- 800 metro, Felix Sanchez 2´03
- 110 metro hesi, Carlos Vitoria 23"23
- Txabalina, Aritz Barrutiabengoa 46´30
- Pisua, Asier Arroiabe 9´93
- 400 metro, Martin Davila 52" 58
- 100 metro, Unai Sarabia 11"75
- Luzeera Jauzia, Mikel Uribesaldo 6´36
- 10 km. martxa, Enrike Kabiketa Txapelketatik kanporatua
- 5.000 metro, Iban Juez 19´11
- Diskoa, Mikel Iturbe 34'24
- 10.000 metro, Jabier Mentxaka 33'03"
- 4X100 metro ,Diosdado, Sarabia, Avila eta Arnaiz 45" 22
- 4X400 metro, Fernandez, Nogales, Davila eta Martin 3'37"

# Ieup nesken taldeak ieup egin zuen futbito finalean

Ieup eta Shaktale izan ziren nor baino nor nesken txapelketako finalean. Eguerdiko 12etan Zaldibarren jokatu zen neurketa eta Ieup taldeak 4 eta 2 irabazi zuen. Irabazleen lau golen egileak Ainara Abasolo, Ainhoa Zeziaga (bi gol) eta Leire Aiani izan ziren. Shaktale taldean gol bien egilea Oihana Loiti. Shaktalekoek bigarren postua bi aste dela hil zen Ainara Ormaetxeari eskaini zioten.




COMERCIOS CENTROCIEN
Arbolapetan!
Olarte, 23 • ARRASATE
Tel.: 77 78 27

BAKAILOETXEA
- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE




lurrindegia perfumeria
ZARRAOA

- Bidaiatzeko eta jazteko poltsak
- Bisuteria
- Opariak
- Edertasun kabinetea
- Solariuma

***Kosmetika**
Lancaster
Guerlain
Elizabeth Arden
*Promozio eta opari handiekin

*Kanpatorpea, 4 Tel.: 79 12 19 ARRASATE*



cerámicas
URIBARRI

**Zeramika erakusketa eta salmenta**

**Uribarri Etorbidea, 22-B**
**Tel.: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80**
**ARRASATE**

# S. Carrascal S.L.

**Bertan egindako**

- **Sukalde altzariak**
- **Armairu enpotratuak**
- **Trastelekurako armairuak**
- **Etabar**

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.*

**Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 79 01 82**

OPEL



**TAKOLO AUTOAKen partez ondo ibili jaixetan!**

TAKOLO AUTOAK

*Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • Tel.: 79 05 86 • ARRASATE*



## ZEIN BANDERADUN POLITAK!

Lau neska hauek eramango dituzte tanborradako banderak. Ezkerrean ageri denak, Miriam Garciak, Arrasateko bandera eramango du; Loli Gomez amazona izango da; Naiara Saenzek SUDCeko bandera mugituko du eta Maite Alvesek ikurriña. Hurrengo egunean seguruen minduta edukiko dituzte besoak!



## NESKATILA GUZTI HAUEK

tanborra jotzera irten ziren zapatuan. Gona motza jantzi, txapeltxoa buruan eta tran, tran, tran.... izugarrizko gogoarekin jo zuten tanborra.
Aurten umeen tanborradan, baina urte batzuk barru nagusienean ikusiko ditugu neskatila hauek.


**DAGLAS bideo-kluba**
6.000 pelikula baino gehiago
Pelikula berrienak
Informatikan berrikuntza guztiak prezio onenean
BEPP banatzaile ofiziala
Otalora Lizentziatua, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 78 19

**HIES EKIMENA**
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

**argiñe**
Mertzeria eta umeen moda
Uribe auzoa, 2
ARRASATE




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

*Jaietan zoriontsu izan!*

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

*Baster-alde*



*Jatetxea*

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

*Galartza auzoa • ARETXABALETA*
*Tel.: (943) 79 24 58*

TITARE

***Lentzeria***
***Kortsetegia***
***Bainujantziak***

*Jai zoriontsuak izan!*



Olarte kalea, 6 • Tel.: 77 10 16 • ARRASATE

## KIROL ARROPEKIN ONDO JANTZITA

**Idoia Herrarte** eta **Kepa Garcia** pozik geratu ziren astelehenean *Mondrasport* kirol saioaren Arrasate Kirolak lehiaketaren irabazle atera zirenean. Kirola egiteko txandala, zapatillak, Euskadiko selekzioren futbol jantzia... denetarik jaso zuten Arrasate Kirolak dendaren eskutik. Zorionak eta jarraitu parte hartzen!

## JUAN MARI URIBARREN TENERIFERA CURROREKIN

Asteazkenean zozketatu zen Teneriferako bidaia *Munduari Bueltaka* saioan. Arrasatear askok parte hartu zuen lehiaketan, guztira 414k, baina sariduna bat izan behar zela eta, kupoia atera eta saria **Juan Mari Uribarreni** egokitu zitzaion. Zorionak eta ondo ibili Tenerife aldean!



## IRAKURLE FINAK

Erdian ageri den neska Esti Agirrebeña duzue, eta ikasturtean ingeleseko zortzi liburu irakurri dituelako saria eman diote. Cim-eko bi irakaslek eman zioten saria.
12 urterekin hainbeste irakurri baditu, zenbat irakurriko ditu urte batzuk barru!

MECA
GRUA ZERBITZUA
Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan
MECA



## SAN ANTONIORI ESKATZERA...

**San Antonio egunean ume mordoa joan zen San Frantzisko parrokira lili bat eskuetan zutela. Ez pentsa nobixo edo nobixa eske joan zirenik. Txikitxo hauek bedeinkazioa hartzera joan ziren. San Antoniok ez dakigu, baina aita Lukasek ederto bedeinkatu zituen.**

FELI
Janaridenda
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Okendo, 3 ARRASATE
Tel.: 79 48 85

OLA-OSTE
Kirol denda
Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
Tel.: 79 65 34

URRIN
TABERNA JATETXEA
JAI ZORIONTSUAK!
URIBARRI, 22 · ARRASATE
TEL.: 79 95 24

AZKARATE MORRAS

PODOLOGIA KLINIKA

Oin arazoak
Haur podologia
Kirol podologia
Biomekanika arazoak
Gari eta onddo tratamenduak
Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak
Kiropodiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

**ORDUA ALDEZ AURRETIK**

**Uribarri etorbidea, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 79 53 63**

**ROTULOS**

**M2**

**ERROTULOAK**

Tel./Faxa: 76 57 93

B E R G A R A



• **Solarium-a dutxarekin.**

**LAURA**

estetika zentrua

**Ondo pasatu jaiak!**

• Depilazioa argizari hotz edo beroarekin.
• Depilazio elektrikoak ( BLEND metodoarekin ).
• Aurpegiaren tratamenduak.
• Masaiak.

**Adi! Pablo Urangatik Uherkape kaleko 2.zenbakiko E1.go ezkerrera pasatu gara.**

**Tel.: 79 22 88**

**ESKIÑA**
**taberna**

**Zorionak eta ondo ibili San Juanetan!**

**Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 20 20**

**BITTORI**
**ERRETEGIA**

**Ondo ibili!**

***Eguneko menua • Kartako menua***
***Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak***

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



Montte

EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

Pablo Uranga, 1
Tel.: 79 38 22 • Faxa: 79 36 78
**ARRASATE**

Poligono Industriala, 10
Tel.: 88 88 00 • Faxa: 88 88 07
**BEASAIN**

# Sorginen orduan... Akelarrea!

**Batzar zaratatsu eta nahastuaren sinonimo bezala itzuli izan da Akelarre hitza hizkuntza desberdinetara. Euskal Herrian zentzu berezi eta sakonagoa izan du beti.**

**Historialarien esanetan, kristautasunaren aurkako ezkutuko mugimendua zen, kasu batzuetan garaiko gizarte antolaketaren aurkakoa ere. Kondaira eta ipuinlarien esanetan, sorginen gau batzarra zen. Dena den, sorgin, azti edo iraultzaileen batzarrak izanda ere, beti ulertu da Akelarrea jai lizun, pagano eta blasfemo bezala.**



SorginEKIN gazte taldeak, sekulako jaia prestatu du San Juan bezperarako. Urteko gau labur eta majikoenean, Akelarrerako deia luzatu dute sorgin hauek. "San Juan Batzordekoek, zerbait antolatzeko gonbitea egin ziguten- kontatzen du sorginetako batek- eta Akelarre bat egitea okurritu zitzaigun".

Arrasaten bada Akelarrea antolatzeko paraje paregabea: Monterron. Eta hau da sorginek aukeratu duten lekua. Batzarra gauerdian izango da.

## IRRINTZI ETA TXALAPARTA HOTSA

Akelarreari hasiera emateko, irrintzi lehiaketa egongo da. "Irrintzien ohiartzuna eta txalaparta kalean ere entzungo da eta jendearen atentzioa deitzeko modu aproposena dela uste dugu". Irrintziak beraz, herriko sorgin eta azti guztiak biltzeko balioko du. Gaueko 12etan puntuan, Akelarrea hasiko da. "San Juan bezperan afari ugari egiten da, eta afalondorako Akelarrea baino hobeagorik ez dago". Suaren inguruan dantza egin eta edabe majikoa egongo da. "Edabe majiko bat prestatu dugu eta bildutako guztien artean banatuko da. Edabearekin konjuro bat egingo dugu, urte osoan izpiritu onak eta zortea gure alde izateko. Edaten dutenek, maitasuna lortuko dute ".

## AKERRARI DEITU

Edabeak eta musikak, gaueko momentu majikoarenari emango dio paso. "Akerrari deituko diogu, Akelarrea aker barik ez litzateke Akelarre izango eta.


ETXERAT TABERNA
ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE
EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.
Enpresa, tailer eta bulegoen garbiketa, mantenimendua
Etxebizitzak, lokalak eta obra amaierako garbiketak
Uribarri, 20 ARRASATE
Tel. eta Faxa: 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA
Autoen garbiketa eskuz: tapizatuak, jarlekuak...
Olio, gurpil, bateria etabarren aldaketa.
Mekanika orokorrean
Uribarri, 20 ARRASATE
Tel.: 79 52 76

beinke



Agertuko da seguru, baina ez dakigu barregurea edo beldurra emango duen".

Monterronen bildutako sorginek eta aztiek, erratzekin duten trebetasuna erakutsi ahal izango dute. Parte hartu nahi duen guztiarentzat erratzak egongo dira lasterketa egin dezaten. Lasterketan eta irrintzi lehiaketan parte hartu duten guztientzat sariak egongo dira.

## ZUGARRAMURDIN BAINO HOBETO

Nafarroa aldeko Akelarreak dira ezagunenak, horien artean Zugarramurdikoa. Arrasateko sorginen lehen Akelarrea izango denez, Zugarramurdiko sorgin eta aztiekin jarri ziren harremanetan. "Zenbait gomendio eta ideia eman zizkiguten baina hemengoa desberdina izango da. Zugarramurdin jendea parte baino, ikusle da. Hemen alderantzizkoa izango da, ondo pasatzea da eta gure helburua". Orain arte herrian entzundakoagatik, baikor agertzen dira SorginEKINekoak. "Akelarrearen ideiak jendearen atentzioa deitu du. Espero dezagun, kuriositateak eta gauza berrien nahiak jende asko biltzea". San Juanetako ekintza berri honek arrakasta izango balu, datorren urteetan berriro egingo litzateke. Dena den, aurtengo ospakizunean jarri dute Arrasateko sorginek ilusio guztia. "Jaia antolatuta dago, baina norainokoa izango den jendeak esango du".

## AKERRA GORA!

Akelarreetan, akerraren itxuran azaltzen den jeinu edo deabru mitolojikoa gurtzen zen. Lurpeko jeinu hau, sorginen bilkuraren burua zen. Deskripzio batzuen arabera, gizon aurpegia eta aker gorputza zuen. Beste batzuen arabera, aker burua eta erraldoi gorputzarekin agertzen zen. Ilargi beteko gauetan, bere inguruan biltzen zituen inguruko sorginak. Batzuk erratzetan hegaz etortzen ziren, beste batzuk basakerren gainean, eta ahate, xaguxahar edo ontz itxurarekin beste hainbeste.

Gaueko 12etan puntu puntuan, Akerrari deitzen zitzaion. Akerra gora!, Akerra gora! ohiukatzen zuten sorginek, agertzen zen arte. Bere agindupean, kristau mezaren parodiazko zeremonia ospatzen zen. Jarraitzaileek ogia, arraultzak eta dirua eskaintzen zioten akerrari, gurtzeko asmoz. Akerrak orduan, kristautasunaren aurkako irakasbideak ematen zituen, bere jarraitzaileei Jainkoaren eta santuen ukapena eskatuz. Bukatzeko jaunartzearen parodia egiten zen okela eta ogia banatuz.

## EGUNSENTIRAINOKO DANTZAK

Meza santuaren parodiari, demasako dantzaldiak segitzen zion. Danbolinaren soinuari jarraituz, akerrak sorgin ar eta emeekin dantzatzen zuen. Batzuk mendi belar aluzinogenoekin eginiko edabeak hartu eta beste batzuk gorputzean igurtzen zituzten. Bakoitzaren dibertimenduak ez zuen mugarik. Kondaira batzuen arabera, sorginak, bizkorturik, gaiztekeriak egitera ateratzen ziren, bataioa hartu barik hildako haurren hezurrez argitzen zutelarik bidea.

Jaia egunsentiko lehen errainuekin bukatzen zen.




LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIRAKO ETA
LARRUZKO ARTIKULUAK

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel.: 79 14 84


ZARAUTZ
ALTZARIAK
Olarte kalea, 35 • ARRASATE • Tel.: 79 28 44



HAURTXOA

Jaioberritik
10 urtera arteko
jantzi eta
osagarri guztiak:
aulkiak,
jostailuak,
seaskak,...



SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!

Arrasate pasealekua, 4 • Tel.: 79 14 90 • ARRASATE



JOSE MARI SALEGI

HARATEGIA · URDAITEGIA

Etxean egindako urdaikietan berezituak.
Etxean prestatutako janaria



ONDO PASATU SAN JUANAK!





Olarte, 20 • ARRASATE • Tel.: 79 45 55


ARREGI
arte eta enmarkazióa
enmarkazioa
ispiluak
kuadroak
obra grafikoa
Maalako Errabala, 8
Tel.: 79 56 44
ARRASATE


SABURDI
URDAITEGIA • HARATEGIA
SAN JUANAK
URTEAN
BEHIN DIRA
APROBETXATU!
Sebero Altube, 7
ARRASATE
Tel.: 79 86 15

# Mikel Lasa

TXINPARTA TALDEKO MUSIKOA



**Soinuaren hauspoari gogotik eragingo dio San Juan hauetan Mikelek. FP eta musika ikasketak eginikoa, beste bi lagunekin batera Txinparta taldean jotzen du. Euren musikarekin disfrutatzeko aukera izango da datorren domekan.**

**1. Zein da zure horoskopoa?** Libra
**2. Sinestuna zara?** Gauza askotan bai, beste askotan ez.
**3. Animalia bihurtzekotan?** Txoria.
**4. Zure akats bat/gauza on bat?** Pila bat/ Pazientzia.
**5. Zerk lotsarazten zaitu?** Gauza gutxik.
**6. Amets bat?** Zoriontsua izan.
**7. Zer kenduko zenuke mundutik?** Gorrotoa eta miseria.
**8. Gertakizun historiko bat?** Bat ere ez.
**9. Nor miresten duzu?** Inor ez.
**10. Zeri diozu beldurra?** Agonia luze eta mingarriari.
**11. Zertaz damutzen zara?** Ezertaz.
**12. Negar egin duzun azken aldia?** Ez dut gogoratzen.
**13. Zer falta zaio Arrasateri?** Erreka garbi bat.
**14. Eta zuri?** Denbora.
**15. Lanbidez aldatzekotan?** Musika irakaslea.
**16. Arrasateko gustoko toki bat?** Arbolapeta.
**17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Kotxea garbitu.
**18. Zein egunkari irakurtzen duzu?** Hartzen dudan lehena.
**19. Gustoko janari bat?** Dena gustatzen zait.
**20. Liburu on bat?** *El mundo de Sofia.*
**21. Filmerik onena/txarrena?** *El piano*/ Gehienak.
**22. Musika talderik onena/txarrena?** Texas/ Bakalau musika orokorrean.
**23. Telebistako programarik onena/txarrena?** Dokumentalak/ *Goenkale.*
**24. Egin dizuten oparirik politena?** Muxu bat.
**25. Denbora librea zertan pasatzen duzu?** Bizikletan, mendian...
**26. Oporretarako toki bat?** Mendia
**27. Etxeko lanik gorrotagarriena?** Hautsa kentzea.
**28. Gomendio bat?** Gauzak esan eta egin aurretik, bi aldiz pentsatu.
**29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Merezi ezkero...
**30. 200 milioi irabaziz gero?** Bizi.


**CARMEN**
**Ileapaindegia**
Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 79 03 63

HILARION
Taberna-jatetxea
Kafetegia
• Eguneroko menua eta kartako menua
• Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...
Prezio guztiz eskuragarriak!!
Larrea enparantza, 5 behea Tel.: 77 01 69

KARLOS
Bitxitegia

*Biteri kalea, 13*
*ARRASATE*
*Tel.: 79 34 26*

MICROS'S
Informatika
*Osagarri eta memorian eskaintza bereziak!*
J. Luis Iñarra, 20
Tel./Faxa: 79 51 11 • ARRASATE

Marivi
LORADENDA
Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen) • ARRASATE
Tel.. 79 15 59 / 78 81 54
Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37

ILEA

Ferrerias. 79 87 62






AMI OINETAKOAK

oinetakoen autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

Zubizarreta

GALERIA 44

San Juanetako oparirik onenak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 79 90 50 • ARRASATE

CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Udako ikastaroak eta errekuperazio ikastaroak.

ALEMANA
INGELESA
FRANTSESA

Eta gainera gure **Mediateka** zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. **DOHAINIK.**

*Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE*
*Tel.: 71 20 55*

*Olakua, 14 • OÑATI*
*Tel.: 71 60 00*




BK ARRASATE

FOTOKOPIAK: Z/B 2.5 pta.tik aurrera

FOTOKOPIAK: KOLOR 69 pta.tik aurrera

Olarte, 13 • ARRASATE • Tel.: 79 79 06

## Horoskopoa

- **Aries** Behar ez den lekuetan sartzen duzu sudurra.
- **Taurus** Hasi maleta prestatzen. Oporrak behar dituzu.
- **Gemini** Esku eder batzuen masajea behar duzu.
- **Cancer** Pozik bizi eta aberatsa izan. Askotxo eskatzen duzu.
- **Leo** Jaietan ondo pasatzea da garrantzitsuena, eta ez lo egitea.
- **Virgo** Buruhauste askotxo dituzu azkenaldian. Lasai hartu.
- **Libra** Iratzargailua behar duzu amets luzeetatik esnatzeko.
- **Scorpio** Lagunak minduta utzi eta zu zeu pozik geratu?
- **Sagitarius** Footing egitea. Horixe bakarrik falta zitzaizun!
- **Capricorn** Noiz ikasiko duzu eguzkia hartzea ez dela osasungarria?
- **Aquarius** Bexamela eta pastela baino gozoagoa zara. Gozoegia!
- **Piscis** Zuregatik edozer gauza egin daiteke.

## Gurutzegrama

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | | | | | | | |
| 10 | | | ■ | 11 | | | |
| 12 | | | | | | ■ | |
| 13 | | ■ | ■ | 14 | | 15 | |
| 16 | | 17 | 18 | | | | |
| | ■ | 19 | | ■ | 20 | | |

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1.Ahoz gora etzanda, igerian batez ere. 9. Norbaiti gertatu den zerbaiten errua bota. 10. (Ald.) Azkenengo joan den urtean. 11. Urik ez duena. 12. Bizileku. 13. Musika-eskalako seigarren nota. 14. Nahikoa. 16. Anioiari dagokiona. 19. Atsekabea, oinazea, etab. adierazteko erabiltzen den hitza. 20. (Ald.) Jamaikan, 60. hamarkadaren hasieran, sortutako musika.

**Bertikalak** 1.Ibon, Arrasate eskubaloi taldeko entrenatzailearen abizena. 2. Ronald Wilson, zine-aktore eta EEBBetako presidente izan zen. 3. Landare unbelifero jangarria. 4. Gizon bati zerbait ematen zaiola adierazteko hitza. 5. Igaro den denbora. 6. Adinez lehena dena, zaharrena. 7. Arnasa hartu ezinik hil. 8. Adoretsu, bihoztun. 15. Ku Klux Klan. 17. Kasik. 18. Hortz eta haginak inguratu eta finkatzen dituen haragia.

**Horizontalak:** 1.Aratinik. 9. Leporatu. 10. (Ald.) Iaz. 11. Agor. 12. Egongu. 13. La. 14. Aski. 16. Anioniko. 19. Ai. 20. (Ald.) Ska.

**Bertikalak:** 1. Alzelai. 2. Reagan. 3. Apio. 4. To. 5. Iragan. 6. Nagusia. 7. Ito. 8. Kuraios. 15. KKK. 17. Ia. 18. Oi.

Eltze
• Oparitarako artikuluak • Aukerako tresneria erreusa • Baxera.
Ferrerias Kalea, 28 • ARRASATE

YARZA AKADEMIA
OHOTIK UBIRA ARTE.
MAILA GUZTIAK EUSKARAZ NAHIZ ERDARAZ.
INGELESEZKO MAILA GUZTIAK.
Ondo pasatu San Juanak!
Olarte, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 07 24

CE ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

"EDERTU"
ileapaindegia eta solarium-a

ONDO PASA JAIAK!
San Andres auzoa • Tel.: 79 04 28 ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
Zerbitzuak:
Diagnostikoa-Orientazioa • Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia • Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

KOOP. E. S.COOP.
EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tlfnoa.: 791844
Faxa: 792941
ARETXABALETA

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.

• Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

• Gesalibar auzoan baserria salgai. Berritua eta egoera onean. Tel.: 79 97 35. Arratsaldez eta gauez.

• Soraluzen apartamendua salgai. Tel.: 79 50 71.

### 3. Errentan emateko

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

• Torreviejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

• Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

• Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrean kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Tel.: 79 57 31.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Etxea alokatzen da San Andresen. Tel.: 79 04 28. Lan orduetan.

• Alikanten loretegia daukan txaleta alokatzen da uztailean< eta abuztuan. Interesatuek dei egin 79 40 01.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

• Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

• Pisu handi bat behar da 97-98 ikasturterako. (94) 460 86 48. Lan orduetan.

• Pisu txiki bat alokatuko genuke San Andres edo Musakola inguruan. Irailetik aurrera. Tel.: 79 54 46 Goizetan. Eider edo Errukane.

• Abuztuan pisua alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: (945) 44 52 24.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


**77 05 65**

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan.Tel.: 79 90 24 / 77 03 30.

### 5. Etxe konpartituak

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

• Datorren kurtsoan pisua konpartitu nahiko nuke Leioan. Tel.: 79 38 13. Leire.

• Lan finkoa duen mutilak logela bat behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

• Garaje itxia salgai Udala plazan. Tel.: 79 97 03.

• Munarren garajea salgai. Tel.: 79 44 07.

• Roneoko etxebizitzetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Lokala saldu edo alokatu egiten da. Ura eta argindarrarekin. Tel.: 79 76 95.

• Komertzioa salgai. Bi jardunekin. Ondo kokatuta eta interesgarria. Prezioa konkretatzeko. Tel.: 77 13 91.

• Lokal-garajea salgai Erguin kalean. 22 m$^2$. Prezio interesgarria. Tel.: 79 18 70.

### 14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokairuan, solariumaz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m$^2$. Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

### 15. Errentan hartzeko

• Rock taldeak lokala alokatu eta konpartitu egingo luke. Tel.: 79 75 90. Oskar.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gauez.

• Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke lituzke. Margari. Tel.: 77 04 60.

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska euskaldunak dendaren baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

### 18. Eskaerak

• Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda orduetan.

• Gidatzeko karneta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Ordenadorez lan bat pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 79 93


GUCCI
ENVY
GUCCI
parfums
BENGOA
LURRINDEGIA
Zerkaosteta, 5
ARRASATE
Tel.: 79 28 85

62. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 61 82. Goizezedo gauez 10etatik aurrera.

• Fruta denda baten lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 01 79.

• Neska gaztea eta esperientziaduna behar dugu jatetxe zerbitzurako. Abuztuan eta irailean. Tel.: 77 01 69.

• Emakume euskalduna behar da ume txikiak zaindu eta etxeko lanak egiteko, baita larunbatetan ere. Tel.: 79 27 27 (lan orduetan) edo 79 70 29.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Magisteritza daukan neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 10 21. Maite.

• 5. mailako fisikako ikasleak klase partikularrak emango lituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

• Uztailean OHOko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 69 41. Arantxa.

• Matematika laugarren mailako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tel.: 77 02 62.

• Laugarren mailako Ekonomia ikasle batek klase partikularrak emango lituzke euskaraz zein erdaraz. Tel.: 79 84 42. Unai.

• Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Tel.: 79 58 22.

### 21. Eskaerak

• REMeko lehen kurtsoan dabilen ikasle batek uztaila eta abuztuan klase partikularrak behar ditu. Tel.: 79 27 48.

• Uztailean ingeleseko mintza praktika egiteko irakaslea behar dut. Tel.: 77 05 00 / 79 02 11. Kepa.

• Soziologiako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituzke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 08 98 / 71 53 42. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezinhobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatu barik dagoen sofa-ohea salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta.Tel.: 77 04 61.

### 29. Eman

• Komuneko osagarriak emateko prest nago. Tel.: 76 44 34.

### 31. Galdu

• Erlojua galdu zitzaidan Musakolako jaietan. Zapatu arratsaldean. Radiant markakoa. Tel.: 79 69 69.

• Anbar motako zilarrezko pultsera galdu nuen Musakolako jaietan. Tel.: 79 81 16.

• Urrezko kataia galdu nuen Zaldibar inguruan. Amabirjina baten irudia dauka. Tel.: 77 13 30.

• Ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen. Tel.: 79 28 44.

Maiatzaren 28an betaurrekoak galdu nituen. Metalikoak dira, gorriak. Tel.: 79 85 25.

• Urrezko belarritako bat galdu nuen Erdialdean. Perla zuritxo bat du. Eskertuko da. Tel.: 79 27 74.

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

• Kotxeko gasolina tapoia eta kotxeko giltza galdu ditut Meca gasolindegi inguruan. Tel.: 79 80 25.

### 32. Aurkitu

• Urrezko pultsera bat aurkitu nuen larunbatean Sebero inguruan. Izena eta data jarrita dauka. Udaltzaingora deitu.

• Erloju bat aurkitu nuen azokan. Tel.: 79 52 82.

### 33. Denetarik

• Tarok kartak irakurtzen ditut. Tel.: 79 82 55.

## HARREMANAK

### 34. Agurrak

• Irune, zurekin pasa ditugun uneak ez ditugu inoiz ahaztuko. Zure lagunak.


LONTXO
TABERNA
Olarte, 12
ARRASATE
Tel.: 77 14 91
Aupa San Juanak!

BRANKA
TABERNA
San Juanetan girorik onena!
Zarugalde, 1 • ARRASATE • Tel.: 79 21 13

Mari Jose
Gora San juanak!
OINETAKOAK
Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 79 22 98

RUMBA TABERNA
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Iturriotz kalea
ARRASATE

ZABALA
oinetakoak
Ondo pasatu San Juanak!
Erdiko kale, 18 • Tel.: 79 14 27

J. Markiegi.

*Gizonezkoen moda*

*Olarte, 2*
*Tel.: 79 15 32*

*AUPA SAN JUANAK!*

A R R A S A T E

**DISCO-BAR**

**GURELEKU**

**Disco-Bar Gurelekuk SAN JUAN jai zoriontsuak oparitzen dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

*Oskar Vitoria*



**BITXI LANTEGIA**
**Zure gustoko bitxiak!**

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tel.: 77 01 44 ARRASATE

AMORE EMANGO DUZU!




*Ondo pasa San Juanak!*

Ipek®
Denda

Herriko plaza, 19
ARRASATE

**ORTO+ LAGUNEK**

*Zugan pentsatzen du, laguntzen zaitu!*

• Bizkarreko minak ekiditzeko gerrikoak
• "Mariposa" oherako burukoak
• Belauneko bereziak, eusteko eta kirolerako
• **Neurrira egindako plantila bereziak, deskantsurako edota edozein arazo motarentzat**
• **Lanerako zuekoak**

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tel.: 79 89 34

# Zer ikusiko dut Se

## SALBEA: Elizan edo etxean zuk aukeratu!

San Juan Parrokia obretan dagoenez, aurten frantziskotarren elizan egingo da Salbea.

Toki aldaketaz gain, bada beste nobedaderik salbearen inguruan: Arrasate Telebistako kamarek oso-osorik grabatuko dute Salbea. Beraz, San Frantzisko elizara kamarak ere sartuko dira, ondoren arrasatearrek Salbea etxetik ikus dezaten. Elizara joan ezin duzuenok, egunean bertan **(ekainaren 23an)** baina gauean ikusi ahal izango duzue Salbea ATBri esker.

- **Salbea, gaueko 9.15etan emitituko du ATBk.**
- **Lehenago, 8.30etan, iazko San Juanetako une onenak gogoratzeko bideo bilduma eskainiko da, eta baita aurtengo makalaren irudiak ere.**

## DANTZAK: galiziarrak, andaluziarrak...

Ikuskizuna ere eskaini behar dela eta, ATB herriko elkarte batzuekin jarri da harremanetan. Zehazki esateko Al-andalus, Lore Gazteak, Corazón de Encina, Nafarroakoekin eta galiziarrekin. Elkarte guzti horiek dantza taldeak dituzte, eta **ekainaren 24an**, tokian tokiko dantzak ikusgai izango dira eurei esker.

- **Seberora hurbiltzen zaretenok arratsaldeko 6etan ikusiko duzue dantza erakustaldia zuzen zuzenean.**
- **Etxetik ikusi nahi duzuenondako ATBk 8etan emitituko du.**



## BERTSOLARIAK: bi ekitaldi

Bertsozaleekin pentsatuta, bi saio antolatu dira. Alde batetik, **ekainaren 24an**, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsotan arituko dira AEDk antolatutako saioan.

- **Seberon arratsaldeko 19.20etan hasiko da ekintza.**
- **ATBk gaueko 21.45etan emitituko du.**

Bestalde, **ekainaren 25ean**, bailarako bertsolari gazteak arituko dira bertsotan.

- **Seberon arratsaldeko 19.20etan.**
- **ATBtik gaueko 21.45etan ikusi ahal izango da bertsolari gazteen saioa.**

Lurrindegia
ERTZ
Opariak
Ferrerias, 29 behea • Tel.: 79 08 70 • ARRASATE

Jai Zoriontsuak!

HEMEN
gozotegia
GAO kafeak
Kroissantegia
Sebero Altube, 8 • Tel.: 79 94 99 • ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

# eberon eta ATBn?

## UMEENDAKO nahi beste joko

Unai Torresek eta Txatxilipurdik hainbat saio antolatu dute haurrendako.

Hasteko, **ekainaren 24an**, Ze Bero ATBn programa egingo da. Txikienek jokoetan parte hartzeko aukera izango dute, eta Loramendi Kirolak dendak emandako sariak banatuko dira.

Horrez gain, **ekainaren 25a** umeen eguna denez, Txatxilipurdik eta telebistak elkarlanean umeendako saioa eskainiko dute. Partehartzaileei kamisetak emango zaizkie.

Bukatzeko, **ekainaren 26an**, Karaokea jarriko da kantatu nahi duten guztiei aukera emanez. Gainera, ume batzuren aktuazio bereziak ere izango dira.

- **Seberon, eguerdiko 12etan grabatuko dira ekintza guzti horiek.**
- **Etxetik ikusi nahi badituzue, jarri ATB arratsaldeko 2.30etan hiru egun horietan.**

## Elkarrizketak eta musika MAGAZINEAN

Zertaz berba egin ere izaten da San Juanetan. Hori dela eta, **ekainaren 25ean**, magazina gidatuko dute Unai Loidik eta Elene Alberdik. Bi kazetariak hainbat lagun elkarrizketatuko dituzte. Besteak beste, Mckinley espedizioko hiru lagunak. Elkarrizketez gain, musikari eskainitako tarteak izango dira Goikobaluren eta Patxi Saiz abeslari getariarraren eskutik.

- **Seberon arratsaldeko 6etan.**
- **ATBk arratsaldeko 8etan emitituko du.**



## Jaiei buruzko BIDEO BILDUMA

Zelan ez, kaleko giroa ere jasoko dute ATBko kamarek eta elkarrizketak ere egingo zaizkie arrasatearrei. Horretarako bideo bildumak eskainiko dira eguneko ekintzak zelan joan diren jakiteko.

- **San Juanetako bideoak ekainaren 24an eta 25ean, iluntzeko 21.15etan emitituko dira.**
- **Ekainaren 26an, arratsaldeko 3.30etan.**




MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

PUB HAIZEA
arrasate



# San Juan jaiak irratiaren bidez zuzen-zuzen jarraitzeko: 107.7 FM, Arrasate Irratia

Arrasate Irratia burubelarri murgilduko da San Juanetan. Irratiko lankideek festarako tarteren bat aurkitzen jakingo dute seguruen, baina lan ere egingo dute jaiak irratiz jarraitzeko aukera egon dadin.

Ekainaren 24tik 26ra arte San Juanen inguruko irratsaioak eskainiko ditu herriko irratiak. Saioak goizeko 9etan hasiko dira, eta eguerdiko 12ak aldera edo beranduxtxoago bukatu.




**Diego Martiartuk eta Aitziber Aranburuzabalak gidatuko dituzte irratsaioak.**

Irratiak Arrasate Pasealekuan dituen estudiotan irratiko bi lankideak egongo dira saioa gidatzen: Aitziber Aranburuzabala eta Diego Martiartu. Kalera ere aterako da irratia hainbat korrespontsali esker, eta era horretan zuzeneko konekxioak egingo dira. Kalean ibiliko dira Elene Alberdi eta Jon Balenziaga, kalean zelako jai giroa dagoen zuzen-zuzenean kontatzeko.

Bestalde, lehiaketak ere egingo dituzte jendearen partehartzea bultzatzeko.

**Aurrezkiaren fruituak**

Egin ezazu ezarpen bat Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan eta berehala jasoko dituzu zure aurrezkien fruituak.




Izakinak bukatu arteko eskaintza.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZURE AMETS GUZTIAK
EGIN AHAL IZANGO DITUZU
ALMERA
MICRA
PRIMERA
TERRANO
ZATOZ ETA EZ ZARA DAMUTUKO
CHASIS
CABINA
GAMA
TRADE
ECO-7
VANETTE
CARGO
ALDIBI AUTOAK
ZIGORROLA KALEA, 1 • TEL. 943 / 71 20 02
20.500 ARRASATE
BAIMENDUTAKO ZERBITZUAK
TALLERES MOTOR KIDE
ITZIAR INDUSTRI POLIGONOA, 4 • ITZIAR-DEBA
LEGAUTO NORTE 95
LEGAZPIKO BIDEA, Z/G • LEGAZPIA
TALLERES BLANCO
SAN LORENZO BIDEA POL. 4 • BERGARA
NISSAN
GIDATU
ETA GOZATU

# foto **zaharra**

Nork ez dio jende helduari, "Jendetsuak izaten ziren orain urte batzuetako San Juanak" bezalako esaldiren bat entzun? "San Juan hirugarrena, batez ere", esaten dute gehienek. Horrelako esaldien lekuko aste honetako argazki zaharra. Herriko plaza jendez gainezka ikusten da bertan, argazkilariari begira daudenak izan ezik, erdi-erdian jartzen zen magalaren inguruan dantzan gehienak.



Aurten bertan utzi gaituen Jose Mari Lasagabastarrek atera zuen argazkia, berari gehienbat San Juanetako hirugarrena ateratzea gustatzen zitzaion eta. Aldizkari honetan bertan iaz egindako elkarrizketa-erreportai moduko batean horrela esaten zuen berak: "Batez ere San Juanetako hirugarren eguna ateratzea gustatzen zitzaidan, herri-giroa nagusi, hura zen onena. Orain ere osasuna izanez gero, jarraituko nukeen". Ezin bere ametsik bete, baina gutxienez argazki piloa utzi zizkigun Jose Marik.

*Urtea: 1940-50 hamarkada.*
*Argazkia: Jose Mari Lasagabaster.*


**MAPFREren abantailetariko bat fidagarritasuna da.**




**Zorionak San Juan jaietan mondragoetar guztiei!**

**Zure auto aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD
Garibai etorbidea, 16
Tel.: 79 89 00 / 79 67 22
ARRASATE



Maalako Errebala, 1908.

Arrasaten 1907tik 1997ra arte

Casa Ceciaga

MERTZERIA ETA BARRUKO ARROPA



90 urte
zure
zerbitzura





Maalako Errabala, 3 • ARRASATE • Tel. 79 12 62

DIM






***SEGURTASUNAREN* ARTEA**

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

**ARTEAREN *TEKNOLOGIA***

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

***BERRIKUNTZAREN* ARTEA**

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28.
Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

**Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.**
**OPEL VECTRA BERRIA.**
**ARTEA *MUGIMENDUAN.***

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.